


EUSKARA

EKAINA > UZTAILA > ABUZTUA 2020



AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO



gizartea eta kultura  
garaikidea

**B**ilbao



*Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao leku egokia  
da kultura praktika, prozesu, esperientietarako  
espazio gisa bizitzeko.*



- 6 *Energia eraldatuarekin itzuli* Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko Zuzendaria
- 8 Programazio hedatua
- 10 Sormenari lagundu
- 12 Sorkuntza garaikidearen loturak, elkarrizketak eta deribak

## **PROGRAMAZIOA**

### **/Arte garaikidea**

- 16 *Steve Paxton. Drafting Interior Techniques.* Erakusketa
- 18 *Alina Aguila eta Tana Garrido.* Erakusketa
- 20 *Sandra Cuesta. Lo adherente y el fuego.* Erakusketa-Soinu interbentzioa
- 22 *Nestor Lizalde. Akelarre elektrikoa.* Instalazioa
- 24 *Sra. Polaraiska. Emakume jakintsuen kontseilua* Az-Kideak
- 26 *Asier Irazabal & Hernán Quipildor. La llave del alma.* Fatxada Proiektua

### **/Arte biziak**

- 28 *Barruko tekniken estudioak.* Steve Paxtonen inguruko nazioarteko mintegia. Mintegia
- 30 *BOS-Az. Musika lotuneak.* Musika
- 32 *Dantzan Bilaka.* Dantza

### **/Zinema eta ikus-entzunezkoak**

- 35 *BIdeOtik.* Ikus-entzunezko bestelako narrazioei begira
- 39 *Hamar zinema urte, hamaika ikusteko.* Zinemateka
- 42 *Golem Uda*





## **SORKUNTZARAKO SUSTAPENA**

- 46 [Deialdiak, egonaldiak eta komunikazioak 2020-20211](#)
- 48 [Sorkuntza eta ikerkuntza bultzatuz.. Ikertzaile Az-Kideen programa](#)
- 50 [Oscar Gómez Mata. Makers. Artista Az-Kideen programa](#)

## **AZ**

- 54 [Azkuna Zentroko Mediateka, konektatzeko, sortzeko eta pentsatzeko gune berria](#)
- 56 [Azkuna Zentroa argitalpenak](#)
- 58 [I'm a basque designer](#)

## **AGENDA**

- 62 [Agenda](#)
- 70 [Informazio orokorra eta protokoloak](#)



# Energia eraldatuarekin itzuli



Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren hamargarren urteurrena ospatzeko, 2020. urtea proiektuz josita hasi zen guretzat, etorkizunera bideratutako eta, aldi berean, orainean sustraitutako energiak. Plan guztiak, beraz, gure Zentroak definitzen duen egitekora zeuden bideratuta, hau da, gizartea kultura garaikidearekin lotzera. Horretarako genuen programazioan, 300 artistak eta kultura-eragilek baino gehiagok parte hartu behar zuten.

Baina, atek ireki genituenetik lehen hamarkada ospatzear geundela, itxi egin behar izan genituen. Une tristea izan zen, inoiz ikusi gabeko egoera batean, argiak itzaltzera, belztera eta oihala jaistera behartu baikintuen. Gizarte osoak bezala, ez genekien zer genuen aurrean, baina hasiera-hasieratik argi izan genuen harremanetan jarraitu behar genuela gure publikoekin, artearen eta kulturaren bidez.

Etengabe aldatzen ari den gizartea gara, gure ohiturak ia nabaritu gabe eraldatzen dituzten eguneroko aldaketa txikiek markatua. Baina gertatu denak lurrikara baten eragina izan du gure bizimoduan. Bat-batean balaztatu –zerbait asaldatzailea, alde guztietara korrika zihoan gizarte batentzat–, eta bestelako kontzientzia hartu behar izan dugu gure abantailez. Egia da teknologiak aukera eman digula “bakartze soziala” hein batean arintzeko, baina ikusi dugu, halaber, dagoeneko bizitzeko ezinbesteko ditugun pantailak oztupo direla kontaktu zuzenaren emoziorako. Horren ondorioz, lehentasunak berraztertu behar izan ditugu, eta lehen kontuan hartzen ez genituen gauzei balioa eman.

Normaltasunera itzultzeaz hitz egiten da. Baina bestelako egoera batera goaz, eta, nolana ere, ‘normaltasun’ desberdina izango da. Uste sendo horretatik abiatuta, jarduera bat proposatzen diegu herritarrei, testuinguru artistikoari eta publikoen komunitateei, une berri honi buruzko hausnarketa xertatzen duena: Dena berdin izango da, ezer ez da berdin izango.

Berriro elkartzeko, partekatzeko eta esperimentatzeko zorian gaude, arte garaikidearen, dantzaren, musikaren, zinemaren, literaturaren, espazioaren eta, azken batean, Alhóndigan dagoen guztiaren bidez. Baina, oraingoan, planteamendu berri batetik abiatuko gara harremanetan, hurbiltasunari edo ikaskuntzari beldurra galtzeko beharra baitugu, egunerokotasun hobetua partekatzeko.

Azkuna Zentrokoak, talde gisa, duela hamar urte ateak ireki genituenean genituen gogo eta ilusio berarekin itzuli gara. Albert Einsteinek zioen bezala, energia ez bada sortzen, ez suntsitzen, eraldatu besterik ez bada egiten, aurrera jarraituko dugu gure energia eraldatuarekin.

Horregatik guztiagatik, programazioa birdimentsionatu dugu 2020-2021 aldirako. Ekainetik abendura arte, 70 kultura-jarduera baino gehiago programatu ditugu, bertako eta nazioarteko ehun sortzailerekin baino gehiagorekin, eta Steve Paxton: Drafting Interior Techniques erakusketa zabaldu dugu, Culturgest Lisboarekin lankidetzan. Datozen hilabeteetan, nazioarteko bi sinposio egingo ditugu, eszena garaikideko figurekin -hala nola Steve Paxton berarekin-, Mabi Revuelta artistari eskainitako erakusketa monografiko berria izango dugu, eta artista AZKideak eta ikertzaileak Azkuna Zentrora itzuliko dira.

Aurreikusita genuena bertan behera ez uztea pentsatu dugu, eta gauza askori beste modu batean ekingo diegu. Esate baterako, Gutun Zuria, Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdia: saiakera kolektibo bihurtu dugu, 2020ko edizioan parte hartu behar zuten egileen testuekin, eta datorren urtean argitaratuko da. Literatura-jaialdi bat liburua ikuskizun bihurtzen duen ekitaldia bada, erabaki dugu ikuskizun hori liburu bihurtzea, edizio hau markatu duen errealitate kritikoa aurre egiteko gai izango dena, gainera.

Halaber, maiatzaren amaierarako aurreikusita zegoen Prototipoak, Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Topaketetarako abian jarritako prozesuak 2021era arte iraungo du. Hemendik aurrera, proiektu honetara gonbidatutako artisten lan-topaketak izango

dira, eta musika, eszena, arte bisualak, performancea eta liburua izango dira nagusi. CA2M zentroarekin batera ekoitzi genuen Ana Laura Aláez artistaren Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío erakusketa 2021eko otsailean izango da.

Bilboko Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroa gara, etapa berri honetako erronkei erantzuna emateko betebeharra bere gain hartzen duen gure bizi eta organikoak. Uste dut sorkuntza eta adierazpen artistikoa erabakigarriak izango direla aurrerantzean ere, bizitzen ari garen guztia digeritzeko. Horretarako, sortzaileek plataformak, denborak, tokiak, baliabideak eta zaintza beharko dituzte beren proiektuak gaitasun osoz garatzeko. Ildo horretan, Azkuna Zentroak artisten eta publikoen habitata izan nahi du.

Sorkuntzarako, produkziarako eta komunikaziarako laguntza oso agerian dago 2019-2023 Programa Proiektuan. Denbora horretan, gertatzen den guztiarekiko lotura estutuko dugu, denbora errealean eta eragile kulturalekin eta komunitate publikoekin etengabeko elkarrizketan. Garai konplexu hauek eman diguten esperientzia birtuala aprobeztatu dugu, eta lan egingo dugu topatzeko modu berriak, askotarikoak eta, gainera, in situ sortzeko.

2020an, beste etapa bati ekiten diogu, etorkizunari begira, prest, esperientzia berriak, egikera berriak, aukera berriak pentsatzeko, sortzeko eta egoteko. Duela 10 urte bezala, Azkuna Zentroak argiak piztu, atek zabaldu eta oihala altxatuko du berri.

Zentroa bizitzaz betez ospatzen dugu bizitza.

Zuen zain gaituzue. Ongi etorri!

# Programazio hedatua

Azkuna Zentroak 2020-2021 programazioa berregituratu du, ezer bertan behera utzi behar ez izateko, Zentroaren programazio ildoekin lotuta aurreikusita dauden kontratu eta proiektu guztiak gauzatzen ahalegintzeko.

Hiruhileko honetan, zabalik jarraituko duten erakusketak izango dira [Steve Paxton](#). [Drafting Interior Techniques](#) Erakusketa aretoan, eta [Tana Garrido](#) eta [Alina Aguila](#) artista egoiliarren [Haurtzarotik zahartzarora, eta alderantziz](#), azken hori [Lantegia](#). [Ideen laborategian](#). [Sra. Polaroiska](#) (Alaitz Arenzana eta Maria Ibarretxe) proiektuko artista [Az-Kideek](#) Emakume Jakintsuen

beste Kontseilu bat antolatu dute, oraingoan Terrazan. [Fatxada proiektua](#). [Diseinua, ilustrazioa eta komikia](#) ekimena Arriquirarreko sarrerara itzuli da, [Asier Irazabal](#) eta [Hernan Quipildor](#) sortzaileen [La llave del alma](#) proposamenarekina.

Musika esperimental eta soinu-arte bultzatzeko [Hotsetan](#) programaren baitan, [Sandra Cuestaren Lo adherente y el fuego](#) instalazioa aktibatuko da. [Zinimateka](#) jardunean hasiko da berriro, Hamar zinema-urte, zinezko hamarkada zikloarekin, Zentroan Golemen jarduera aldia gogoratu; azken urteetan ikusgai izandakoetan nabarmenenak jasoko ditu.



Lantegia. Laboratorio de Ideas. Alina Aguila, Tana Garrido eta Lester Álvarez. Inauguración [Haurtzarotik zahartzarora, eta alderantziz](#).





Oskar Alegria. *Zumiriki* (2019) BideOtik. Ikus-entzunezko bestelako narrazioei begira

BideOtik. Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira programak aurtengo edizioa topaketa batekin bukatuko du: [Oskar Alegria](#) euskal zinemagileak *Zumiriki* (2019) bere azken proiektuaren sortze prozesua partekatuko du ikusleekin.

Horrez gain, [#AZETxean](#) bitartez azken hilabeteetan bititakoaren ostean, Azkuna Zentroa online espazioan hasi da lanean. Horren harira dator [Steve Paxton](#). *Drafting Interior Techniques* erakusketaren inguruko Nazioarteko Mintegia, [Ixiar Rozasek](#) koordinatuta; formatu hibridoa du, aurrez aurre eta online. Uztailaren 8an eta 9an izango da hitzordua, hainbat artistarekin, hala nola [Steve Paxton](#) bera, [Ion Munduate](#), [Ixiar Rozas](#), [Maria Muñoz](#), [Pep Ramis](#), [Otto Ramstad](#), [Ula Iruretagoiena](#) eta [Marc Badal](#).

Beste alde batetik, Azkuna Zentroak hainbat emanaldi eskainiko ditu ([BOS](#)) Bilbao Orkestra Sinfonikoarekin elkarlanean, musika kultura garaikidearekin

lotuko dutenak, bitarteko hartuta dantza, arte bisualak edo soinu elektronikoa eta esperimentalak Atarian izango dira, eta, musika-errepertorioan, pieza koreografikoak, ikus-entzunezko proiektzioak eta musika elektronikoaren zatiak edo inprobisazioak sartuko dira, musika klasikoaren estetikarekin eta praktika artistikorik berriekin kontrastea sortzeko.

# Sormenari lagundu

Programazioa berrekitzarekin batera, sormena bultzatzeko programak sendotu egingo dira. Ekainean ireki da [Babestu](#) aparteko deialdia, Arte proiektuak ekoizteko eta bistaratzeko Azkuna Zentroak zabalduko [Lantegia](#). [Ideien laborategia](#) proiektuaren baitan, parte hartzea, sortzea, berrikuntza, ezagutza, eskuragarritasuna eta aniztasuna sustatuz.

Deialdi honen bidez, Zentroaren programazio ildoekin lotutako hainbat proiektu hautatuko dira, eta prozesu horiei jarraipena emango zaie lankidetzaren giroko lan ingurune ireki batean; hor, arte-sorkuntza ikerketatik hurbilago dagoen prozesu gisa landuko da. Gune publiko honetan, artistek aukera dute beren praktikak gure publiko-komunitateekin probatzeko, partekatze eta agerian jartzeko.

Halaber, [BlideOtik](#). [Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira](#) programako beste edizio bat abiarazi dugu, artxiboko irudiak, memoria eta sormen digitala erabiliz artelanak sortzea indartzeko. Lan horiek aipatutako programaren barruan sartuko dira 2021ean. Lan horiek programa horren barruan sartuko dira 2021ean.

Ekimen plan horren baitan, berrindartu egin dugu artista [Az-Kideak](#) eta ikertzaile elkartekideak erakundea, euskal eremuan osatutako era horretako lehenengoa. Programa duela urtebete jarri zen abian, Zentroak artistekin duen konplizitatea sustatzeko helburuarekin, egungo sorkuntzaren inguruko analisia eta ekoizpena sustatzeko eta laguntzeko, komunitate artistikoen, ikusleen eta beste profesional batzuen arteko trukea erraztuz. Gonbidapen bidez eta bi urtez, Azkuna Zentroa hainbat artista eta ikertzaileekin artuko da, haien prozesuan laguntzen

eta partekatzen, eta beste sare artistiko batzuekin lotzen.

Horrez gain, Azkuna Zentroko [Egonaldi Artistikoen Programa](#) proposamenak aurkezteko irekita izango da 2021eko apirilera arte. Bai [Dantza Garaikideko Egonaldiak](#) eta bai [Praktika Artistikoetako Egonaldiak](#) elkarlotu egiten dituzte hurbileko sormen ehunak eta nazioarteko kultura inguruneak, elkarren artean truke, harreman eta lankidetzaren iraunkorrak bilatuz. [Kolektibo Egoiliarra](#) programa ere zabaldu egin da, sormena eta artistak bultzatzeko ekintza planari esker. Oraingoari dagokionez, hurrengo bi urteetan bi



hurbileko kolektibo egongo dira Azkuna Zentroan.

Azkuna Zentroa lanean ari da sare eta proiektu berriak zabaltzeko; horietako bat da 2021ean aktibatuko den [Nazioarteko Komiki Egonaldia](#), Quebec-eko Literatura Etxea eta Angulemakomikiaren eta Irudiaren Nazioarteko Hiria bezalako bi erreferenterekin elkarlanean. Programa horren bidez, hiru egilek era bateratuan garatuko dituzte euren proiektuak hiru egoitzetan: Anguleman, Quebecen eta Bilbon.

Esperientzia aitzindaria da Euskadin, eta nazioarteko kultura-plataforma baten abiapuntua ere bada, lan grafikoaren esparruan sormena bultzatzeko eta egileei beren sorkuntza-prozesuetan laguntzeko xedea duena. Hitzarmenaren bidez, komikiaren esparruan sorkuntza sustatu, eta herrialde desberdinetako pertsonen

arteko elkarketa bultzatu nahi da, funtsezkoak diren ingurune profesionaletan, beste diziplina artistiko garaikide batzuetako artistekin konektatzeko. Beste alde batetik, Brasilgo Sao Pauloko Ateliê Fidalga proiektuarekin lankidetzaxtekotan gara, arte praktikakako egoitza berri bat zabaldu ahal izateko.

Artisten arteko trukea gonbidapenez egingo da. Egoitza horren bitartez, 2021ean artista bat Bilbon praktiketan izatea da asmoa, eta bitartean euskal eremuko artista bat Sao Paulon egon ahal izango da.



# Sorkuntza garaikidearen loturak, elkarrizketak eta deribak

Artistak, komisarioak, kultura-eragileak... Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko programazioa diziplina desberdinetako pertsonen konplizitatearen emaitza da, haiek gure proposamenak balioesten eta aberasten baitituzte, era askotako ikusleen komunitateei zuzendutako ekarpenekin. Hiruhileko honetan gure artean izango ditugun proiektuak eta pertsonak erakutsiko ditugu hemen, aurrean abian jarri ditugun elkarrizketen parte direnak.







Néstor Lizalde  
Artista



Sandra Cuesta  
Soinu-artista



Hernán Quilpidor  
Artista



Asier Irazabal  
Artista



Tana Garrido  
Artista



Lester Álvarez  
Artista



Oskar Alegria  
Kazetaria eta ikus-entzunezko artista



nucbeade colectivo  
Ikus-entzunezko artistak



Alina Aguila  
Artista



Celia Dosal y Roxana  
Popelka  
Ikus-entzunezko artistak



María Manero  
Ikus-entzunezko artista

© Pablo Zamora



Juan Loriente  
Aktorea



Aimar Arriola  
Ikertzaile Az-Kidea



Oscar Gómez Mata  
Artista Az-Kidea



Sra. Polaroiska  
(Alaitz Arenzana & María Ibarretxe)  
Artista Az-Kideak







ARTE GARAIKIDEA / ERAKUSKETA  
OTS. 20 > IRA. 20

# Steve Paxton. Drafting Interior Techniques

Lisboako Culturgest-rekin lankidetzan



Steve Paxton. Drafting Interior Techniques



Zer egiten du nire gorputzak hartaz kontziente ez naizenean? Dantza garaikidearen munduko erreferentea den Steve Paxtonen barne-teknikek osatzen dute maiatzaren 10era arte Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon ikusgai izango den atzera begirako hau.

*Steve Paxton. Drafting Interior Techniques* erakusketarekin, erakusketa-aretoak atea zabalduko dizkie dantza garaikideari eta haren aitzindariari. Paxtonen proiektuak esperimentaziorako gune bihurtzen du kaxa zuria, arte eszenikoan, memorian, ikus-entzunezko narrazioan eta praktika performatiboan zehar ibiliz. Estatuan aitzindariaria den erakusketa-proiektu bat da, Culturgest Lisboarekin lankidetzan garatua. Lisboan erakutsi zen lehen aldiz, 2019ko martxotik uztaile bitartean; eta Azkuna Zentroan hazi eta bilakaera izan du, pieza berriekin eta performanceak, tailerrak eta nazioarteko mintegi bat dituen programa publiko batekin.

Steve Paxton munduko dantza modernoan eragin gehien duen koreografoetako bat da, figura erabakigarria arte garaikidearen pentsamenduan.

Mugimenduan-dagoen pentsalari eta idazle honek berrogeita hamarreko hamarkadan hasi zuen ibilbide profesionala. José Limón eta Merce Cunningham-ekin lan egin zuen; elkarlanean aritu zen, besteak beste, Robert Rauschenberg, Simone Forti eta Yvonne Rainer artistekin, eta Judson Dance Theater eta Grand Union kolektiboa sortu zituen haiekin batera.

Hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadetan, dantzako teknika berritzaileak sortzen lagundu zuen, hala nola Material for the Spine eta Contact Improvisation, eta azken honek inflexio-puntua ekarri zuen mugimenduaren eta dantzaren artean historian, eta erreferentzia bilakatu zen lanbidearentzat. Koreografo askok haren lan-kodeak jaso dituzte, eguneroko mugimenduen -esate baterako, erraz bezain artistikoa den oinez ibiltzearen- analisiari eta integrazioari buruzko kodeak.

Erakusketa hau João Fiadeiro eta Romain Bigé komisarioek egindako ikerketa- eta dokumentazio-lanaren emaitza da, bien artean artxibo bisual berria sortu baitute dantzaren eta, beraz, kulturaren erreferente nagusietako bati buruz.

////////////////////////////////////

**Otsailak 20 > Irailak 20**

**Erakusketa Aretoa  
Sarrera dohainik**

////////////////////////////////////

**Ordutegia**

**Ekaina: asteartetik igandera**

11:00 - 14:00

16:00 - 19:00

**Uztaila eta abuztua: egunero**

11:00 - 14:00

16:00 - 19:00

////////////////////////////////////

**Programa Publikoa**

*Barruko tekniken estudioak.*  
**Steve Paxtonen inguruko  
nazioarteko mintegia** (28. orr.)

Ixiar Rozasek koordinatua

**Uztailak 8 eta 9**

**Asteazkena eta osteguna**

---

**Mal Pelo**

*On goldberg variations /  
Variations*

**Urtarrila 2021**

////////////////////////////////////

## Culturgest

*Steve Paxton. Drafting Interior  
Techniques* Culturgest-en (Lisboa)  
jatorrizko ideia bat da, non 2019ko  
martxoa eta uztaile bitartean  
aurkeztu zen lehen aldiz.

# Alina Aguila eta Tana Garrido

*De la infancia a la vejez, y también  
viceversa (Haurtzarotik zahartzarora, eta  
alderantziz)*

Praktika Artistikoen Egonaldia 2019

De la infancia a la vejez, y también viceversa. Inaugurazioa. Elkaritzaketa. Lester Álvarezekin



Azkuna Zentroko artista egoilarrak diren [Tana Garridok](#) (1989) eta [Alina Aguilak](#) (Kuba, 1987) Habanako Carlos Garaicoa estudioko [Artista x Artista](#) programaren laguntzarekin antolatutako 2019ko Praktika Artistikoen egonaldian egin dituzten proiektuen emaitzak erakusten dituzte uztailaren 18ra arte, Lantegiko BAT Espazioan.

[Alina Aguila](#) artistak jostailuen eta haien ezaugarri psikologikoen mundua du ardatz, jolasteko objektu gisa eta gizabanako baten laguntzaile gisa errealitatearekin egindako lehen esperimentazioetan. Uneren batean fetitxearekin bat datorren fenomeno horrek artearen munduarekin eta haren objektuekin lotura handia du. Artelanak kultura baten jostailu konplexuak dira nolabait.

Jostailuak haurrentzat eginak daude, ikerketa psikologiko, zientifiko eta didaktiko osoarekin. Hala ere, helduak pentsamendu horretan harrapatuta geratzen dira, eta ezinezkoa zaie praktika horietatik askatzea. Luizi psikologiko eta ludikoaren ezintasuna agerikoa da.

Artistak azaldu bezala, «hedadura bat sortzea interesatzen zait, gauzen konnotazio hutsa idealizazio magiko batera mugiarazten duen beste mutur bat. Jostailuak industrializatzean, akaberan eta materialen erabileran fintzera iritsi dira, eta mugarik gabe erreproduzitu dira. Nire kasuan, pertsonalizazioari eta irudimenezko jolasei buelta bat ematea dago. Manipulazio material bat erreskatatu nahi dut, barru-barrukoa; bizkortze gisa pentsatzea gustatzen zait, ideia simple eta, aldi berean, transzendentalean jolas gisa».

Alina Aguilarekin harremanetan, [Tana Garrido](#) artistak Kubako egungo etxeko espazioaren ikus-entzunezko behatoki bat jarriko du ikusgai du, instalazio-formatuan. Garridok euskal sorburuko emakume kubatarren lekukotasuna jaso du, generoaz, lurraldeaz eta memoriak hausnartzeko.

Sortzaileak azaltzen duenez, «Prozesuak etapa ezberdinak izan ditu: lehena, ikerkuntzakoa, hemen Euskal Herrian; bigarrena, Habanan, ingurunearekin harremana hartuz eta emakume horiek guztiek harremanak ezarri; eta hirugarrena, aurreko guztia bideoan eta audioan erregistratzea eta gauzatzea izan da. Azkenik, material horiek guztiek bat egiten dute antitesi formal bat sortzeko, identitate espezifiko edota komun batzuen eraikuntzara hurbiltzeko: emakumeena eta haien historiarena».

////////////////////////////////////  
**Otsailak 13> Uztailak 18**  
**Asteartea > Larunbata**  
**16:00 - 19:00**  
**Lantegia 2. BAT Espazioa**  
**Sarrera dohainik**  
////////////////////////////////////

---

Elkarlanean:

## ARTISTA X ARTISTA

---

Laguntzaileak:

 **Sabadell**  
Fundación

Fundación Banco Sabadellek Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko Egonaldi Artistikoen Programa babesten du, artea eta kultura sustatzeko eta hedatzeko duen programaren barruan.



Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko Egonaldi Artistikoen Programak Etxepare Institutuaren laguntza du.

ARTE GARAIKIDEA / ERAKUSKETA-SOINU INTERBENTZIOA  
EKA. 15 > UZT. 4

# Sandra Cuesta

## *Lo adherente y el fuego*

Hotsetan. Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa



Sandra Cuesta artistak Azkuna Zentroan aurkeztuko duen *Lo adherente y el fuego* interbentzioan, Lantegia 1eko soinitik eta aretoak dituen erresonantzia-aukeretatik abiatuta, espazioan biziko da, soinuen eduki-ontzi gisa, dauden iturri ugariak anplifikatzeko.

**Gailuko espazio-egituran esku hartzen duten formak artikulatuz, artistak erakusketa muntatzeko lanetan sortutako barrunbe baten espazioa aldatuko du, soinua ateraraziko dio.**

Artistaren arabera, pieza «kantuen zerrenda bat da, eta beste gauza baten aukera izateko bide ematen duten objektuetatik abiatuz eginda dago. Haren forma ez da osatuko, ezin izango dugu deszifratu, baina kanta bakoitzak zerbaitez ohartaraziko du. Honelako kantuak: *era la noche (gaua zen)*, *metálica información (metalezko informazioa)*, *mensajes al cuello (mezuak lepoan)*, *adiós (agur)*, nola-halako sentsazioa sorraraz dezakete, hari-mutur guztiak lotzekoa, hor zegoen soinuari eusten dioten bolumen leunen eta soinu-anplifikadoreen bidez».

////////////////////////////////////

**Ekainak 15 > Uztailak 4**  
**Asteartea > Larunbata**

**16:00 - 19:00**

**Lantegia 2**

**Sarrera dohainik**

////////////////////////////////////

 [@sandracuestaazkorbe](https://www.instagram.com/sandracuestaazkorbe)

////////////////////////////////////



### **SANDRA CUESTA**

Eskultura du abiaburu praktika artistikoan, objektuak eta egoerak ekoizteko ikuspuntu gisa. Soinuarekin zerikusia duten hainbat ingurunetan

aurkeztu du lana: Zarata Fest, Le Club Laraxkito, Ertz, Mugatxoan-en Emisión 0. Besteak beste, leku hauetan erakutsi ditu lanak: Baionako Didam museoa, Corkeko The Guesthouse, Horizons Sonores, Ecuries de Baroja, Anglet eta Bilboko Okela. Orain dela gutxi, Alkolea Beach proiektuko parte izan da –erakusketako eta ikaskuntza esperimentalerako espazio bat–; horrez gain, Sácale la Miel programa zuzendu du Dabadaba kontzertu-aretoan (Donostia).

////////////////////////////////////

Sandra Cuestaren saioa **Hotsetan** programaren barruan sartuta dago, hau da, hurbileko eta nazioarteko artisten soinu-lana ezagutzera emateko Azkuna Zentroak duen **Musika Esperimentaleko Programan**.

ARTE GARAIKIDEA / INSTALAZIOA  
UZT. 1-ETIK (astz.)

# Nestor Lizalde

## *Akelarre elektrikoa*

Interbentzio artistikoa terrazan



Nestor Lizalde artistaren *Akelarre elektrikoa* instalazioak Azkuna Zentroko terraza argituko du berriro, 44 arkuk osatzen duten egiturari mugimendua emanez erritueterako espazio gisa. Bilboko hainbat lekutatik gozatu ahal izango da argi-pieza.

Interbentzio hau arte elektronikoko pieza bat da. 44 arkuz osatutako Azkuna Zentroko terrazan esku hartu nahi du, ordenagailuz kontrolatutako argitze-sistema bat jarritz. Argi-matrize bat, Bilboko eguraldirako prestatuta, espazio berezi honetako ezaugarri guztiez baliatzen dena: adreiluzko arkuen jarrera modularraz.

«Eguzkia ostenduta, argiak azalduko dira iluntasunaren babesean. Argi-matrizeak mugiarazi egingo du egitura, erritueterako espazio gisa paratutako jatorrizko 44 arkuk eratutako atala. Su elektrikoak lehian arituko dira elkarren artean, beren irudikapenak deskribatzeko, leizezuloko mitoen gisa. Itzalek eta distira dirdaitsuek dantza egingo dute, gauaren mihisean formak zizelkatzen». Nestor Lizalde.

////////////////////////////////////

Instalazioa egunero piztuko da 20.00etatik 23.00etara

Terraza

Instalazioa bisitatzea:  
kontsultatu [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)  
web orrialdean

////////////////////////////////////

////////////////////////////////////



**NESTOR LIZALDEREN** lanak artearen munduan baliabide berriak deituta bidez azaldu diren aukera berriak ikertzen ditu. Profil tekniko nabaria duen artista honek hizketaldi bat sortzen du

esperimentazio teknologikoaren eta tradizio artistikoaren artean, eta elkarketa horretatik sortzen diren mintzairak ikertzen ditu.

Nestor Lizaldek ikerketa praktikoa egiten du, ikusentzunezko forma eta euskarri berrien sorkuntzan oinarrituta, programazioa, diseinu elektronikoa, fabrikazio digitala eta irudiko sistema optikoak erabiliz. Proiektu hauen bidez, imajinario bat eraikitzen du, zientzia fikzioaren eta surrealismoaren arteko bide erdian, murgiltzeko unibertso bat, kezagarria eta, aldi berean, hipnotikoa.

////////////////////////////////////

ARTE GARAIKIDEA / AZ-KIDEAK

UZT. 2 (ostg.)

# Sra. Polaroida

*Emakume jakintsuen kontseilua*

Garbiñe Mendizabal Furundarena



Sra. Polaroida. Emakume jakintsuen kontseilua. Azkuna Zentroa, 2019. Amaia Lasarekin



*Jakintsuen kontseilua*, artista **Az-Kideak** diren **Sra. polaroiskako** kideak (Alaitz Arenzana eta Maria Ibarretxe) proposatutako zikloak, **Garbiñe Mendizabal Furundarena** Berdintasunerako eta Generorako aholkulariarekin gonbidatu jakintsu gisa jarraitzen du hiruhileko honetan. Azken urteotan garatzen ari diren lan-ildoarekin bat etorri, kolektiboa bereziki bideratuta dago erreferenteak sortzera eta ahalduz, genero-ikuspegitik.

Adineko emakumeekin, hainbat arlotako profesionalekin, sei topaketa dituen zikloa da: antropologoak, fisikariak, idazleak, ingeniariak, biologoak, musikagileak, zinegileak, artistak, poetak, irakasleak, ile-apaintzaileak, jostunak, erizainak, bizizaleak... Elkarrizketa-sorta baten bidez, emakume horiek euren bizitzako eta laneko esperientziak helaraziko eta partekatuko dizkigute, erreferente bihurtzeko moduan. Jakinduria biltzeko eta partekatzeko proposamen bat da.

Antolaketa intimo eta atsegin baten bidez, **Sra. Polaroiskak** proposatu duen esperientzian, konplizitatea eta estimua jakintza eskualdatzeko tresna dira. Formula horrekin, artistek azpikoz gora irauli nahi dute bilera eta espazio horiek baliogabetzeko eta mespretxatzeko joera; berreskuratu egin nahi dituzte, eta esparru publikora zabaldu, era horretan euren balioa aldarrikatu.

**Garbiñe Mendizabal Furundarena** Zientzia Politikoetan lizentziatua eta berdintasun-politiketan aholkularia da. Bizkaiko 'Parekatuz Sarea-n' eta dozenaka erakunde publiko, pribatu, lankidetzako-erakunde, feminista eta emakume-erakundetan egiten du lan.

**Bea Aparicio** ilustratzaileak egingo du hirugarren jakintsuen kontseilu honen kontakizun grafikoa.



**ALAITZ ARENZANAK** eta **MARIA IBARRETXEK** eratzten dute **SRA POLAROISKA** kolektibo artistikoa. Beren

obrak zinema esperimentalak, ekintzako arteak, eta sorkuntza eszenikoak eta koreografikoak ditu ardatz. 2017an Gure Artea saria irabazi zuten, sorkuntzan egindako jarduerarengatik, eta nazioarteko arte-zentro eta jaialdi askotan erakutsi dituzte beren pieza eszenikoak eta ikus-entzunezkoak: Artium Museoa, Reina Sofia Museoa, Guggenheim Museoa, Stockholmeko Cervantes Institutua, Manchester, Parisko Festival des Cinémas Différents, Casa Encendida, Bilbao Arte Fundazioa, eta abar.

////////////////////////////////////

## Uztailak 2, osteguna

19:00

Terraza

Jakintsu gonbidatua:

**Garbiñe Mendizabal Furundarena**

Bere biografia osoa kontsultatu dezakezu hemen: [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)

Sarrera dohainik, aldeztu aurretik webgunean izena emanda, lekukopurua osatu arte (40 lagun). Espaziora sartzeko 30 minutu lehenago joatea gomendatzen da

////////////////////////////////////

 [cargocollective.com/srapolaroiska](http://cargocollective.com/srapolaroiska)

 [sra\\_polaroiska](#)

**Artista Az-Kidea** programak sorkuntza bultzatzeko ildo berri bat da, zeinek laguntza eman nahi die beren lanen bidez arte berriei buruzko begirada iradokitzailea dakarten artistei.

ARTE GARAIKIDEA / FATXADA PROIEKTUA. DISEINUA,  
ILUSTRAZIOA ETA KOMIKIA **UZT. 15 > URR. 1**

# Asier Irazabal & Hernán Quipildor

*La llave del alma (Arimaren giltza)*

Ilustrazioa



Asier Irazabal & Hernán Quipildor. *The cosmogony of the soul (I: The conversations)*, Aita

Asier Irazabal eta Hernán Quipildor artistek beren obra erakutsiko dute Azkuna Zentroko pareta nagusian, udako hilabeteetan, **Fatxada Proiektua**. Diseinua, ilustrazioa eta komikia proiektuaren esparruan.

*La llave del alma* lana da artistak berrikuntza eta sormena partekatzeko asmoz garatzen ari diren *Aita* proiektuaren lehen adierazpen bisuala. Alde horretatik, *La llave del alma* lanak proposatzen duen hizkuntza sinbolikoa trebetasun enpatikoa eta arimaren teknologia garatzeko erabil daiteke, hamabi ikurren bidez. Sinbolo bakoitzak kontzeptu primario bat irudikatzen du, hala nola beldurra, aukera, espazioa, itxaropena, heriotza, denbora, gorrotoa, maitasuna, kontzientzia, izatea, argia eta esanahia. Sinbolo horiek erabili behar dira esanahi garbia duen hizkuntza batera iristeko, gizaki gisa elkar hobeto ulertzeko.

Artisten arabera, «enpatia teknologia organikoa da, bide ematen dio denbora eta espazioa gainditzen dituen konektibitateari, eta intuizio osatuagoa garatzen du gizakiaren esanahiari buruz. Horrek kontzientzia bat sortzen du, gure izatea 'bereizia' izatearen ilusioa desegiten duena eta ulermen zabalagoa izateko aukera ematen duena».



**Uztailak 15 > Urriak 1**  
Arrikibar Plaza (Fatxada)  
Sarrera dohainik



### **HERNÁN QUIPILDOR**

(Argentina, 1972), artista autodidakta da. Ekonomia eta Filosofiako graduondoko ikasketak egin zituen Milanen eta Londresen. 2016. urtean *El gesto* argitaratu zuen, kontzientziaren inguruko kontzeptuak eta errealizazioak partekatzeko asmoz idatzitako liburua. Ordutik, *Aita* proiektu artistikoa hartu du ardatz, Asier Irazabalekin batera, liburuan aurkeztutako edukiak bisualki zabaltzeko eta ikasteko modu berriak aztertzeko.



### **ASIER IRAZABAL** (Bilbo,

1978), pop kultura eta errealaren estetikan aritzen den artista bat da, eta bideoan harrapatutako 'reality-a' du adierazpide nagusia. Egun bizi den Londresen osatu zituen ikasketak, Westminster-eko Unibertsitatean, eta telebistan, bideoan eta Interneten espezializatu zen. Gaur egun, *Aita* proiektua garatzen ari da, Hernán Quipildor-ekin batera, keinu bateratu gisa, eta hori ere bizimodu bihurtu da.



ARTE GARAIKIDEA - ARTE BIZIAK / MINTEGIA  
UZT. 8 ETA 9 (astz. eta ostg.)

**STEVE  
PAXTON**  
Programa publikoa

# *Barruko tekniken estudioak. Steve Paxtonen inguruko nazioarteko mintegia*

Ixiar Rozasek koordinatua



«Desagertzeko joera duen lekuan kontzientzia jartzea». 60 urtez, [Steve Paxton](#) dantzari eta koreografo amerikarrak giza gorputza esploratzeko laborategi gisa hartu du dantza.

[Barruko tekniken estudioak](#) mintegian Paxtonen lana eta pentsamendua landuko ditugu, eta, horretarako, Romain Bigé argitaratutako *Drafting Interior Techniques* (Culturgest, Lisboa, 2019) liburua hartuko dugu abiapuntutzat.

Liburua zortzi kapitulutan –estudiotan- antolatuta dago, eta, horietan, Paxtonek bere ibilbidean erabili dituen tresnak jorratzen ditu. Mintegiko gonbidatu bakoitzak liburuko kapitulu bat hartuko du abiaburutzat, eta harremanetan jarriko du bere lanarekin, ikerketarekin, bizi-esperientziarekin. Zer egiten dute gure gorputzak horretaz jabetzen ez garenean? Zer egiten dugu inprobisatzen dugunean? Zer ikas dezakegu gugandik? Anarkia probatzeko unea al da? Zer keinu egiten dugu lurrarekin? Argitalpen hau auto-hackeorako poltsikoko eskuliburu gisa pentsatuta dago, eta galdera hauek irekiak dira, zerua bezala.

Mintegian parte hartzaile izango dira dantzan eta arte bisualetan prestatutako [Ion Munduate](#) artista, [Maria Muñoz](#) interpretea eta koreografoa, harekin batera [Mal Pelo](#) zuzenetzen duen [Pep Ramis](#) interpretea eta koreografoa, dantzan, inprobisazioan eta mugimenduko irudian formatutako [Otto Ramstad](#) artista, [Ula Iruretagoiena](#) arkitekto doktorea, [Marc Badal](#) artista, [Joao Fiadeiro](#)ekin batera [Steve Paxton](#). *Drafting Interior Techniques* erakusketa komisariatu duen [Romain Bige](#) doktore ikerlaria, Contact Improvisation teknika sortu zuen [Steve Paxton](#) koreografo estatubatuarra, eta mintegia koordinatuko duen [Ixiar Rozas](#) idazlea eta ikerlaria.

**Mintegia online jarraitu daiteke, aurretik webgunean izena emanda.**

////////////////////////////////////

## PROGRAMA

### Uztailak 8, asteazkena Lantegia 1

10:30 - 11:00 [Ixiar Rozas](#). *Estudioa ukimenean*. *Mintegiaren sarrera*

11:00 - 12:30 [Ion Munduate](#). *Estudioa grabitatean*. *Mugitzen-mugituta*

13:00 - 14:30 [Otto Ramstad](#). *Estudioa anarkian*. *Estudioa grabitatean* (Bideokonferentzia)

16:00 - 17:30 [Ula Iruretagoiena](#). *Estudioa mugimendu ibiltarietan*

18:00 - 19:30 [Marc Badal](#). *Estudioa anarkian*. *Estudioa grabitatean*. *Lurraren aldeko keinuak: grabitaterik eza eta estandarizazioa*

### Uztailak 9, osteguna Lantegia 1

11:00 - 12:30 [Romain Bigé](#). *Estudioa konpostean* (Bideokonferentzia)

13:00 - 14:30 [Maria Muñoz](#) eta [Pep Ramis](#). *Estudioa soloan*. *Steve Paxtonen Goldberg Variations*

16:30 - 18:30 [Maria Muñoz](#) eta [Pep Ramis](#) [Steve Paxton](#)-ekin elkarrizketan. *Drafting Interior Techniques* (Bideokonferentzia)

Mintegi hau [Steve Paxton](#). *Drafting Interior Techniques* erakusketaren programa publikoaren baitan kokatzen da. Informazio gehiago 16. orrialdean.



# BOS-Az. Musika lotuneak



Azkuna Zentroak eta **Bilbao Orkestra Sinfonikoak (BOS)** hainbat emanaldi antolatu dituzte abuztuan eta irailean, musika eta kultura garaikidea, gure musika eta soinu esperimentalaren programazio-ildoan lankidetzaren eta elkarriketaren bidez lotzeko.

Emanaldi horietan BOSen ensembleek parte hartzen dute -hari-taldea, perkusio-taldea, metalezko haize-boskotea, zurezko haize-boskotea eta ganbera-orkestra-, hainbat diziplinatako Azkuna Zentroko artista egoiliarrekin harremanetan.

Musika-errepertorioan, pieza koreografikoak, ikus-entzunezko proiektzioak eta musika elektronikoaren zatiak edo inprobisazioak sartuko dira, musika klasikoaren estetikarekin eta praktika artistikorik berriekin kontrastea sortzeko.

////////////////////////////////////

**Abuztuak 6, 13, 20 eta 27**

**Irailak 17**

**Osteguna**

**Bi kontzertu egunean:**

**18:30 eta 20:00**

**Kulturen Ataria**

**Sarrera dohainik**

////////////////////////////////////



# Dantzan Bilakak sorkuntza koreografikoa bultzatzen du Azkuna Zentroan



Dantzan Bilakak Azkuna Zentroan. Otsaila, 2020



2020an eta 2021ean, **Dantzan Bilaka** izango da Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon, sorkuntza koreografikoaren inguruko laguntzako eta testuinguru-sorkuntzako programa, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak bultzatua eta ADDE Euskal Herriko Dantzako Profesionalen Elkarteak koordinatua.

**Dantzan Bilaka** urte osoan barrena egiten da, tailer irekien bidez, tailer horiek bide ematen baitute dantza-komunitatea elkartzeko, autoaintzatespena lortzeko eta haien praktikei buruz hausnartzeko.

Lehen tailerra otsailean izan zen: Gorputz etena edo arretaren trazadurak, Ana Buitragok emana.

Abuztutik urria bitartean, bi tailer egingo dira Azkuna Zentroan, **Thiago Granatorekin** eta **Carolina Mendoçarekin**, eta programa honen barruan aukeratutako bederatzik dantza-proiektutarako laguntza artistikoa egingo da. Urriaren 9tik 11ra proiektuen aurkezpen publikoa egingo da.



**Abuztua > Urria**

**Informazio gehiago:**  
**addedantza.org**




**PROGRAMA**

**Abuztuak 24 eta 25**  
**Astelehena eta asteartea**  
Mentoring aurkezpena

**Abuztuak 26 > 29**  
**Asteazkena > Larunbata**  
Thiago Granatoren tailerra

**Irailak 2 > 5**  
**Asteazkena > Larunbata**  
Carolina Mendoçaren tailerra

**Urriak 9 > 11**  
**Ostirala > Igandea**  
Proiektuak aurkezpen publikoa



**THIAGO GRANATO** Brasilgo koreografo bat da, eta Berlinen bizi da. Bere obra sortzeaz eta nazioartean aurkezteaz gain, hainbat artistarekin egin du lan, hala nola Lia Rodrigues, Mathilde Monnier, Cecilia Bengolea edo Jeffa van Dinther-ekin. Xavier Le Royk koordinatutako *Ex.e.r.ce 8-n* parte hartu zuen, Montpellier-eko Zentro Koreografikoan (Frantzia).



Irudia: Berliner Festspiele

**CAROLINA MENDOÇA**-ren interesguneak dira ezagutza kutsatzea eta logika desberdinen aurrean zaugarria izatea. Eszena Arteetan lizentziatua da ECA-USPh (Sao Pauloko unibertsitatea) eta Koreografia eta Interpretazioko masterra egin zuen Alemaniako Giessen-eko unibertsitatean. Orotat, Carolina kuratore izan zen 2017an Vermelho galeriako Eszena Arteetako VERBO jaialdian eta Videobrasilgo Dantza Denboraldian, biak ala biak Sao Paulon.





CORREOS  
REPÚBLICA DE G...

R. SOCIE  
ZAM...

# BldOtik

## Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira

BldOtik, ikus-entzunezko bestelako narratibei begira programak bi zatitan banatutako topaketa batekin amaituko du aurtengo edizioa. Horrela, autore bakoitzak bere proiektuaren sorkuntza-prozesuak partekatuko ditu ikusleekin, aurkezpen eta solasaldi baten bidez.

Lehen zatian, emakumeen hainbat begiradaren berri izango dugu, honako film hauekin: *Una dedicatoria a lo bestia* (2019), *nucbeade colectivo* (Quiela Nuc eta Andrea Beade); *Patchwork* (2018), *María Moneo*; eta *Capas* (2018), *Celia Dosal* eta *Roxana Popelka*. Hainbat emakume-belaunaldik mundua nola ikusten duten jakingo dugu, zer prismatitak eta zer kezkarakin. Gure bizitzako hainbat etapatan ileak duen garrantzia izan daiteke, edo gibel-transplante baten inguruko bizipenak. Eta, ia azterketa arkeologiko gisa, San Fernando de Henareseko (Madril) Emakumea Babesteko Patronatuan errepresioa jasandako emakumeen esperientziak, beldurrak eta kezkek zein izan ziren jakingo dugu. Zentro hori 1940ko hamarkadan ireki zen eta 1985ean itxi zituen atea.

Bigarren zatian, Oskar Alegria zuzendari euskaldunaren azken film luzearen estreinaldia izango da, BldOtik programari amaiera emateko: *Zumiriki* (2019). Bizitzari buruz berriz hausnartzeko eta naturarekin adiskidetzeko film irudimentsu eta iradokitzaila honek ikusleen txaloak jaso zituen Veneziako azken Mostran.

BldOtik joan den otsailaren 4an hasi zen, *Raúl de la Fuente*ren *Woman* (2019), *Víctor Suarez*ren *Brothers in Syria* (2018) eta *Natxo Leuzaren Born in Gambia* (2019) filmekin, errepresio- eta indarkeria-egoera etengabearen bizi diren herrien errealitatea erakutsiz. Gero, *Caroline Reucker*-en *Le ciel la terre et l'homme* (2018) filmean, Marokoko basamortuan bizi diren familien bizimodu nomada ikusi genuen, eta *Laura Garcíaren* eta *Inés Peris Mestreren [M]otherhood* (2018) filmean, amatasunik ezaren normalizazioaren aldarria. *Jorge Moneo* –*Orbainak* (2019)– eta *Oier Fuentes* –*Azken saskia* (2017) eta *Gogor atzea* (2018)– euskal bideo-egileek iraganeko belaunaldien oroitzapenak eta bizipenak berreskuratu zituzten; eta *Andrómedas* (2019) filmean, *Clara Sanzek* eguneroko bizitzako eta orekako kontuak erakutsi zituen. Martxoaren 10ean, *Marc Serena* zuzendariak, *El escritor de un país sin librerías* (2019) lanarekin, Ekuatore Gineako errealitatean sartu gituen, Afrikako herrialde isolatuenetako batean, duela 50 urte kolonia espainiarra izateari utzi ondoren.

*BldOtik. Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira* Fernando Pérez-ek, Raket Esparzak, Itxaso Díazek eta Ainara Bilbaok koordinatutako programa da.

## 7. saioa

Saio honetan ikuspuntu femininoko begirada askotarikoak ezagutu ditugu. Hainbat belaunalditako emakumeek norbere mundua nola ikusten duten, zer prismatatik eta zer kezkarekin. Gure bizitzako etapaz etapa ileak duen garrantzia izan daiteke; edo gibel transplantate baten inguruan bizi izan dutena eta, ia azterlan arkeologiko moduan, San Fernando de Henaresen 40.eko hamarkadan zabaldu eta 1985ean atek itxi zituen zentroan Emakumea Babesteko Patronatuan errepresiora behartutako emakumeen esperientziak, beldurrak eta egonezinak ezagutuko ditugu.

### Una dedicatoria a lo bestia (2019) + Patchwork (2018) + Capas (2018)

17:00 / Auditorioa

#### Una dedicatoria a lo bestia (2019)



Arkeologia-lan bat balitz bezala, *Una dedicatoria a lo bestia* lanak 1944tik 1985era bitartean martxan egon zen San Fernando de Henaresen Emakumea Babesteko Patronatuaren egoitzan aurkitutako hainbat objektu jartzen ditu ikusgai. Zer memoria afektibo aktibatzen dute 'souvenir' horiek, eta nola integra daitezke frankismoari, trantsizioari eta demokraziaren lehen urteei buruzko kontakizun historikoan?

11'. Dokumentala,

Z/G/E: nucbeade Colectivo (Quiela Nuc eta Andrea Beade)

I: Clara Dios y Suss Serrán

S: María Angulo y Clara Alonso

#### JB Gaztelania

Alcances, Festival de cine documental: Laburmetrairik Onena; IX Festival Mágina

#### Patchwork (2018)



Patchwork Lolyren historia da, gibel transplantatea behar duen 60 urte inguruko emakumearena. Historia 'emalleak' kontatzen du. Zenbat organo transplantatu behar dira zu zeu izateari utzi eta beste pertsona bat izaten hasteko?

8'. Laburmetraia/Animazioa

Z: María Manero Muro

#### JB Gaztelania

Alcine, Festival de Cine de la Comunidad de Madrid; Festival de Málaga; Festival Prime the Animation

#### Capas (2018)



Madrilgo hainbat auzotako emakumeen bi belaunaldik zaletasun berbera dute: ilea zaintzea. Hala eta guztiz ere, ez da gauza bera guztientzat. Bakoitzak bere nortasunaren zati ezberdin bat bezala ulertzen du ilea, eta bere bizitzako hainbat pasarteren bidez, adina alde batera utzita, elkarrekin bat egitera daramaten loturak deskubrituko ditugu.

25'. Dokumentala

Z/G: Celia Dosal Carabias, Roxana Popelka

MU: Paula Damiolini

M: *Me estoy peinando* by GENERADOR

A: Antonio Sáenz Jiménez  
I: Virginia Payamp Sánchez, Gabriela Carbonero Jurado, Paula Dosal Pablo, Mayte López Fernández, Marte, Juana Ruiz-Tapiador, Alba Barrios López, Benita Haro Martín, Enriqueta Sánchez Gay, María Ángeles Bascarán Aramendi

#### JB Gaztelania

Festival de Gijón; Directed By Women Spain

## 8. saioa

BideOtik ixteko, **OSKAR ALEGRIA** euskal zuzendariaren azken film luzea estreinatuko dugu Euskal Herrian: *Zumiriki*. Bizitza birpentsatzeko eta naturarekin birkonektatzeko irudimen handiko film inspiratzailea; txalo ugari jaso zuen Veneziako azken Mostran.



19:00 / Auditorioa

**Zumiriki (2019)**



«Basoetara joan nintzen, asmo baten arabera bizi nahi nuelako; bizitzako funtsezko egitatei bakarrik aurre egiteko, bizitzak erakusteko izan zezakeena ikasteko gai ote nintzen ikusteko, eta, nire ordua iristean, ez nintzela bizi izan ez konturatzeko». Horixe da Walden liburuaren hasiera, eta Thoreauk bezala, Oskar Alegria lau hilabetez bakarrik bizi izan zen basoan, bere sustraiekin eta naturarekin berriz lotzearen bila. Izenburuko ibai erdian dagoen 'Zumiriki' uharteko Crusoe naufragato bat, Alegriak erritu txikiz, aurkikuntzaz, oroitzapenez eta umore zentzu bereziz itxaroten duen ibaian. Bizitza birpentsatzeko irudimen handiko film inspiratzailea; txalo ugari jaso zuen Venezian.

122'. Dokumentala

Z/G/F/MU: Oskar Alegria

M: Ainara LeGardon, Xabier

Erkizia, Mixel Etxekopar, Xavier Garcia, Justa Mentaberi

S: Haimar Olaskoaga

E: Emak Bakia Films

**JB Euskara. Gaztelaniako azpittuloak**

Festival de Cine de Sevilla; Festival de Cine de Venecia;  
L'Alternativa - Festival de Cine Independiente de Barcelona;  
Festival Internacional de Cine Documental de Montreal

### INFORMAZIOA

Film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira, gaztelaniaz azpittulatuak (JBGA).

Programazioan azken orduko aldaketak egon daitezke.

+ Info: [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)

Filma proiektatu baino 30 minutu lehenago irekiko dugu aretoa. Gomendatzen dizugu minutu batzuk lehenago etortzea, filma hasi ondoren ezin baita aretoan sartu.

Ezinbestekoa bada, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbako beretzat gordetzen du eskubidea programatutako jarduerak bertan behera uzteko, aldatzeko edo atzeratzeko, alde zuretik bere web-orrian jakinarazita: [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus).

Kontsulta ezazu zirkloaren programa osoa hemen: [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)

### LABURDURAK

Z: Zuzendaritza

G: Gidoia

E: Ekoizpena / Ekoiztetxea

PE: Produktzio Exekutiboa

EA: Ekoizteke Asoziatua

DG: Diseinu Grafikoa

JB: Jatorrizko Bertsioa

PZ: Produktzio Zuzendaria

MA: Marrazketa

MU: Muntaiak

M: Musika

S: Soinua

A: Argazkia

I: Interpretak





ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK /  
ZINEMATEKA **UZT. 9 > IRA. 10**

# Azkuna Zentroa eta Golem Alhóndiga. Hamar zinema-urte, hamaika ikusteko

## Zinema zikloa

2020an, Azkuna Zentroaren eta Golemen arteko hamar urteko harremana gogoratuko dugu, eta ziklo berezi bat izango dugu azken hamarkadan karteldegian izan diren lanik nabarmenenak erakusteko. Sorkuntza zinematografiko garaikidearen bilakaera eta gizartearekin duen konpromisoa erakusten dituen hautaketa.

Azkuna Zentroa Bilboko kultura zinematografikoaren erreferentzia-gunea da era askotako publikoen komunitateentzat, proposamen askotarikoa eta kalitatezkoa bilatzen baitute Zentroan, zirkuitu komertzialetan normalean izaten ez diren aukerak dituenak.

Milaka pertsona etortzen dira urtero, Azkuna Zentroko zinema-espazioan antolatzen diren proposamenek erakarrita: [Zinematekako](#) zinema klasiko eta garaikideko zikloa jatorrizko bertsioan, ikus-entzunezko bestelako narrazioei begira dagoen [BldeOtik](#) programa; [FANT](#), Zinema Fantastikoaren Jaialdia; [Zinebi](#), Bilboko Zinema Dokumentalaren eta Film Laburraren Nazioarteko Jaialdia; [Film Sozialak](#), Nazioarteko Zinema Ikusezineko Jaialdia; [Zinemakumeak Gara!](#) eta [Zinegoak](#), Bilboko Gaylesbotrans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoaren Jaialdia.

Hori guztia hainbat eragilerekin lankidetzan egiten da, besteak beste, zazpi zinema-aretoak hasieratik kudeatzen dituen [Golem](#) operadorearekin, proposamen askotariko eta kalitatezko bat eskaintzeko. Golemek filmak erakusten, banatzen eta ekoizten ditu, eta, estreinaldi komertzialez gain, munduko hainbat zinematografiaren produkzioak hurbiltzen dizkie ikusleei. Hamar urte hauetan, hainbat zuzendariren lana aurkeztu du Alhóndigan, besteak beste, Zhang Yimou, Kore-Eda edo Takeshi Kitano ekialdeko zuzendariena; Lars von Trier, Michael Haneke, Robert Guediguan eta Laurent Cantet autore europarrena, eta Estatuko eta Euskadiko Montxendem Martín eta Manuel Franco zinemagileena.



[Uztailak 9 > Irailak 10](#)  
[Ostegunak](#)

Golem Alhóndiga Zinemak

5€ / 4€ Az Txartelarekin  
Sarrerak: Golem Alhóndiga  
Zinemako txarteldegian eta  
[golem.es](http://golem.es)



## INFORMAZIOA

Film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira, gaztelaniaz azpittitulatuak (JBGA).

Zinematekako programazioan azken orduko aldaketak egon daitezke.

+ Info: [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)

Filma proiektatu baino 15 minutu lehenago irekiko dugu aretoa. Gomendatzen dizugu minutu batzuk lehenago etortzea, filma hasi ondoren ezin baita aretoan sartu.



## LABURDURAK

A: [Aktoreak](#) | Z: [Zuzendaria](#)

Irudiak: [Imdb](#)

---

**golem**

////////////////////

## HAMAR ZINEMA- URTE, HAMAIIKA IKUSTEKO. PROGRAMA

////////////////////

### Hævnen (Civilization) (2010)

Mundu hobe batean

Uztailak 9, osteguna

17:15, 19:45



Afrikako errefuxiatu-eremu batetik Danimarkako probintzia-hiri bateko egunerokotasun grisaxkaraino doa istorioa. Bi familiaren bizitzak gurutzatu egin dira eta adiskidetasun harrigarri bat sortu da. Laster, adiskidetasuna zena aliantza arriskutsu bihurtuko da, eta jazarpen eskerga ere bai, bizitza arriskatzeraino.

110' / Danimarka // Z: Susanne Bier / A: Mikael Persbrandt, Trine Dyrholm, Ulrich Thomsen, William Jøhnk Nielsen, Markus Rygaard

Oscar: Ingeleseaz ez den Filmik Onena; Urrezko Globoak: Ingeleseaz ez den Filmik Onena; Europako Zinemaren Sariak: Zuzendaririk Onena

### Jodaeiye Nader az Simin (2011)

Nader eta simin, bereizketa bat

Uztailak 16, osteguna

17:15, 19:45



Bere emazteak utzi ondoren, Nader-ek neska gazte bat kontratatu du, gaixo dagoen aita zain dezan. Baina ez daki neskame berria haurdun dagoela eta senarraren baimenik gabe lan egiten duela. Nader laster konturatuko da gezurrez, manipulazioz eta liskarrez betetako sare batean sartuta dagoela.

113' / Iran // Z: Asghar Farhadi / A: Peyman Moaadi, Leila Hatami, Sareh Bayat, Shahab Hosseini, Sarina Farhadi

Oscar: Ingeleseaz ez den Filmik Onena; Berlingo Jaialdiaren Urrezko Hartza, Aktorerik Onena; Urrezko Globoak: Ingeleseaz ez den Filmik Onena; Zinemaldiaren 'Beste begirada bat' saria

---

### Dans la maison (2012)

Etxean

Uztailak 23, osteguna

17:15, 19:45



Frantseseko irakasleak bultzatuta, mutil batek foileto-erako idazketa bati ekiten dio, bi familiaren munduan sartuz: bata burgesia txikikoa eta bestea, bizitza intelektual eta artistikotik hurbilago. Errealitatea eta fikzioa nahasi egiten dira, joko burutsu batean nahasi arte.

101' / Frantzia // Z: Françoise Ozon / A: Fabrice Luchini, Ernst Umhauer, Kristin Scott Thomas, Emmanuelle Seigner, Diana Stewart

Donostiako Zinemaldia: Urrezko Maskorra, filmik onena, gidoirik onena; Torontoko Jaialdia: FIPRESCI saria

### Amour (2012)

Amodioa

Uztailak 30, osteguna

17:15, 19:45



Georges eta Anne musika klasikoko bi irakasle erretiratu dira, kultura handikoak, eta laurogei urteak beteak dituzte. Halako batean, bihotzekoa izan du Annek. Ospitaletik itzultzean, gorputzaren alde bat paralizatuta dauka. Urte askoan bikotekideak lotu dituen amodioa arriskuan egongo da.

127' / Austria // Z: Michael Haneke / A: Jean-Louis Trintignant, Emmanuelle Riva, Isabelle Huppert, William Shimell, Ramón Agirre

Cannesko Zinemaldia: Urrezko Palma; Oscar: Ingeleseaz ez den Filmik Onena; Urrezko Globoak: Ingeleseaz ez den Filmik Onena; Europako Zinemaren Sariak: film, zuzendari, emakumezko aktore eta gizonetzko aktorerik onena

---

### La belle saison (2015)

Udako amodio bat

Abuztuak 6, osteguna

17:15, 19:45



1971. Delphine, nekazarien alaba, Parisera joan da familiaren uztarririk ihes egiteko. Carole paristarra da eta feminismoaren printzipioak defendatzen ditu. Delphine eta



Carolek elkar ezagutuko dute, eta maitasun-istorio horrek bizitza aldatuko die.

105' / Frantzia // Z: Catherine Corsini / A: Cécile De France, Izia Higelin, Noémie Lvovsky, Kévin Azaïs, Laetitia Dosch

**Cesar sariak: Emakumezko Aktore Onenaren eta Bigarren Mailako Aktore Onenaren sarirako izendatua**

## L'Avenir (2016)

Etorkizuna

Abuztuak 13, osteguna  
17:15, 19:45



Nathaliek Filosofia irakasten du Parisko institutu batean. Familiaren, ikasle ohi batzuen eta amaren artean banatzen du denbora. Egun batean, senarrak utzi egiten du beste emakume batekin joateko. Nathaliek bere bizitza berrasmatu beharko du.

100' / Frantzia // Z: Mia Hansen-Løve / A: Isabelle Huppert, Edith Scob, Roman Kolinka, André Marcon, Sarah Lericard

**Berlingo Jaialdia: Zilarrezko Hartza Zuzendaritzarik Onena**

## Toivon tuolla puolen (2017)

Itxaropenaren beste alde

Abuztuak 20, osteguna  
17:15, 19:45



Helsinki. Siriako immigrante gazte bat (Khaled) ezkutuan heldu da itsasontzi batean. Wikström komertzialak ezkontidearekin hautsi, negozioa aldatu eta jabetxe bat ireki du. Haien bideak gurutzatuko dira, Wikströmek sabaia, janaria eta lana eskainiko dizkio, baina mutikoaren ametsa ahizpa aurkitzea da.

98' / Finlandia // Z: Aki Kaurismäki / A: Sakari Kuosmanen, Sherwan Haji, Kati Outinen, Tommi Korpela, Janne Hyytiäinen

**Berlingo Jaialdia: Zilarrezko Hartza Zuzendaririk Onena**

## Bar Bahar (2016)

Bar Bahar, bi munduren artean

Abuztuak 27, osteguna  
17:15, 19:45



Leila, Nour eta Salma Tel Aviven bizi diren Israelgo hiru palestinar dira. Filmak hiru emakume gazteek eguneroko bizitzan duten duatasuna islatzen du, tradizioaren eta hiri handiko bizitzaren artean harrapatuta. Lan egiteko, dibertitzeko eta aukeratzeko askatasuna izateagatik ordaindu behar duten prezioa ere azaltzen du.

96' / Israel // Z: Maysaloun Hamoud / A: Mouna Hawa, Shaden Kanboura, Sana Jammalieh

**Donostiako Zinemaldia, 'Beste begirada bat' saria, Gazteriaren saria**

## Toni Erdmann (2016)

Irailak 3, osteguna / 19:30



Inèsek aholkularitza-enpresa garrantzitsu batean egiten du lan. Bere bizitza estresagarria ezin hobeto antolatuta dago, harik eta aita ireki eta bromazalea (Winfried) batean irsten den arte. Horrek lagunduko dio bizitzari berriz zentzua ematen, irudimenezko pertsonaia bati esker: Toni Erdmann.

162' / Alemania // Z: Maren Ade / A: Peter Simonischek, Sandra Hüller, Lucy Russell, Trystan Pütter, Thomas Loibl

**Cannesko Zinemaldia, FIPRESCI saria**

## Manbiki Kazoku (2018)

Familia-kontu bat

Irailak 10, osteguna  
17:15, 19:45



Ohiko lapurreta bat egin ondoren, Osamuk eta bere semeak neskatila bat aurkitu dute kalean. Zailtasunak gorabehera, familia zoriotsu bizi da, ustekabeko gorabehera batek haien arteko loturak ariskuan jarriko dituen sekretua azaldu arte.

121' / Japonia // Z: Hirokazu Koreeda / A: Kirin Kiki, Sôsuke Ikematsu, Lily Franky, Moemi Katayama, Sakura Ando

**Urrezko Palma  
Cannesko Zinemaldian**

# Golem Uda



Uztailaren 10etik abuztuaren 26ra arte, **Golem Uda** programa itzuliko da Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaora, eta filmen aukeraketa bat eskainiko digu, sortu ziren bezalaxe, jatorrizko bertsioan azpigituluekin, filmak sei egunean behin txandakatuz, ordu desberdinetan.

14 filmak jatorrizko bertsioan dira, azpigituluekin, eta, Cines Golem Alhondigak azaldu duenez, 'benetan merezi du berrikustea, eta, beraz, aukera eman nahi dugu zinema-pantaila batean ikusteko'.

**Golem Udak** proposamen hauek egiten dizkigu:

Europako zinema, zientzia fikzioko estreinaldiak, proiektzio komertzial gehien duten izarrak, eta, lehenengo aldiz, Zinezko ikuskizunak atala, zinemagile ospetsuen ikuskaria eskaintzen duguten bost dokumentalekin.

## PROGRAMA

### **Ema (2019)**

**Uztailak 10 > 15**

Z: Pablo Larraín / 107' / Txile /  
Gaztelania

### **Waves (2019)**

**Uztailak 10 > 15**

Z: Trey Edward Shults / 135' /  
EE.BB. / Ingelesa

### **Aute Retrato (2019)**

**Uztailak 17 > 22**

Z: Gaizka Urresti/ 98' /  
Espainia / Gaztelania

### **The Lighthouse (2019)**

**Uztailak 17 > 22**

Z: Robert Eggers / 110' / EE.BB.  
/ Ingelesa

### **El hoyo (2019)**

**Uztailak 24 > 29**

Z: Galder Gaztelu-Urrutia / 94' /  
Espainia / Gaztelania

### **Synonymes (2019)**

**Uztailak 24 > 29**

Z: Trey Edward Shults / 135' /  
EE.BB. / Ingelesa

### **Portrait de la jeune fille en feu Céline Sciamma (2019)**

**Uztailak 31 > Abuztuak 5**

Z: Céline Sciamma / 120'  
/ Frantzia / Frantzesia

### **Monos (2019)**

**Uztailak 31 > Abuztuak 5**

Z: Alejandro Landes / 102' /  
Kolonbia / Gaztelania, ingelesa

### **Ray & Liz (2019)**

**Abuztuak 7 > 12**

Z: Richard Billingham /  
107' / E.B. / Ingelesa

### **O que arde (2019) Lo que arde**

**Abuztuak 7 > 12**

Z: Oliver Laxe / 89' / Espainia.  
/ Galego

**Uztailak 10 > Abuztuak 26**  
Egunero, ostegunetan izan  
ezik, **Hamar zinema-urte,**  
**hamaika ikusteko zikloari**  
eskeinitako eguna

**5€ / 4€ Az Txartelarekin**  
Sarrerak: Golem Alhóndiga  
Zinemako txarteldegian eta  
golem.es

## INFORMAZIOA

Film guztiak jatorrizko  
bertsioan proiektatuko dira,  
gaztelaniaz azpigitulatuak  
(JBGA).

Filma proiektatu baino 30  
minutu lehenago irekiko dugu  
aretoa. Gomendatzen dizugu  
minutu batzuk lehenago  
etortzea, filma hasi ondoren  
ezin baita aretoan sartu.

# golem

### **Fourteen (2019)**

**Abuztuak 14 > 19**

Z: Dan Sallitt / 94' / EE.BB. /  
Ingelesa

### **Queen & Slim (2019)**

**Abuztuak 14 > 19**

Z: Melina Matsoukas / 132' /  
EE.BB. / Ingelesa

### **Nan Fang Che Zhan De Ju Hui (2019)**

**Abuztuak 21 > 26**

Z: Diao Yinan / 117' / Txina /  
Txinatarra

### **La vérité (2019) La verdad**

**Abuztuak 21 > 26**

Z: Kore-eda Hirokazu / 106' /  
Frantzia / Frantzesia

## LABURDURAK:

Z: Zuzendaria





# Deialdiak eta egonaldiak 2020-2021

## **Babestu. Sorkuntza garaikidea babesteko programa**

**Ekainak 1 > Uztailak 30, 2020**

Azkuna Zentroak sorkuntza sustatzeko aparteko deialdia egingo du ekainean, Euskal Herriko arte-sareko artistek, sortzaileek, erakundeek eta/edo entitateek aukera izan dezaten Covid-19aren krisiak kaltetutako prozesuak eta ikerketak garatzen jarraitzeko.

**Lantegia. Ideien laborategian** sartutako deialdi honen bidez, zenbait proiektu aukeratuko dira, Azkuna Zentroko programazio-ildoetan (arte garaikidea, zuzeneko arteak, zinema eta ikus-entzunezkoak, kultura digitalak, literatura eta gizartea) oinarritutako praktika artistikoak garatzeko forma berriak aztertzen dituztenak.

## **BideOtik. Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira**

**Ekainak 15 > Irailak 30, 2020**

Bigarren urtez jarraian, Azkuna Zentroak ekainean irekiko du atea, **BideOtik. Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira** programan parte hartzeko, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko zinema-eta ikus-entzunezko programazioaren barruan, 2021eko otsailean eta martxoan. Deialdia berariaz zuzenduta dago bideo-adierazpenaren inguruko lanak egiteko ikus-entzunezkoak erabiltzen dituzten artistei eta bideo-sortzaileei.

**BideOtik. Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira** programak bertan eta

nazioartean sortutako proiektuak balioesten ditu, eta, besteak beste, sorkuntza bereziak hartzen ditu barnan, ikus-entzunezko lexiko garaikidea erregistratzeko eta irudikatzen beste modu batzuk dituztenak, eta esperientzia pertsonalekin, biografiekin eta bizitzako istorioekin lotutako gaiak lantzen dituztenak.

## **Komisario Berriak (KB)**

**Ekainak 19 > Uztailak, 2020**

**Komisario Berriak (KB)** proiektuak beste deialdi bat abiarazi du, komisariotzari laguntza ematen jarraitzeko, azken hamarkadetan Euskal Herriari lotutako praktika artistikoei erantzuten dieten proiektuak ikusaraziz.

**Komisario Berriak (KB)** Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Azkuna Zentroaren (Bilbo), Artiumen (Gasteiz) eta Tabakaleraren (Donostia) arteko lankidetzaren proiektua da, eta komisariotzaren praktika euskal testuinguruan garatzea eta profesional berriak sortzea du helburu.

Proiektuan parte hartzen duen zentro bakoitzak lan-ildo berezia proposatzen du. Azkuna Zentroaren komisariotza-motak ikuskera artistiko bat zabal dezake, edozein erakusketa edo beste edozein gailu edo metodologia iragaite-kapitulu gisa erabiltzeko, nahiz eta aldez aurreko ikerketez eta ezagutzez blaituta egon. Komisariotzak erakusketako espazioa eta denbora ekarriko ditu berekin, baina, aldi berean, gainditzea lortuko du.

Deialdi hau zuzenduta dago komisariotzari eta ikerketaren arloko beste lanbide batzuei lotutako ibilbidea duten pertsoneri. Proiektuak aurkezteko epea 2020ko ekainaren 19tik uztailearen 10era arte egongo da zabalik. Oinarriak helbide honetan kontsulta ditzakezu: [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)

---

## **'Erakusketaren saioa (1977-2017)' Komisariotzako Nazioarteko Sinposioa. Komunikazioak Aurkeztea**

**Abuztua > Iraila, 2020**

Azkuna Zentroak ekainean irekiko du deialdia, [Erakusketaren saioa \(1977-2017\)](#) topaketaren laugarren edizioako komunikazioak aurkezteko. Bulegoa z/b eta Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao erakundeek elkarren artean antolatutako Komisariotzaren Nazioarteko Sinposio honek 1977 eta 2017 bitartean izan diren erakusketa zehatzak aztertzen ditu. Atzera begira jarri nahi da, orain dela gutxiokoak diren baina gaur egun ere oihartzun egiten duten eta oraina ulertzeko lagungarri zaizkigun erakusketei, testuei eta gertaerei begira.

Orain arte hiru topaketa egin dira. Lehena, 2016. urtean, hitzaurrearen formatuan; eta beste biak, 2017. eta 2019. urteetan, 1977. eta 1987. urteen arteko eta 1987. eta 1997. urteen arteko hamarkadei eskainiak, hurrenez hurren. 2020ko topaketa urrian izango da, eta 1997-2007 hamarkadako kasuak aztertuko ditu.

---

## **Dantza Garaikideko Egonaldia 2021eko apirilaren 4ra arte**

Azkuna Zentroak zabalik du [Dantza Garaikideko Egonaldiaren](#) deialdia, Rotterdameko (Herbehereak) Dansateliers sorkuntza- eta erakusketa-zentroarekin

lankidetzan egina. Egoitza hau dantzako profesionalentzat da eta bi etapatan garatzen da. Lehena Azkuna Zentroan izango da, eta pieza koreografiko bat ikertzeko eta sortzeko prozesua jorratuko du. Bigarrena Rotterdamen izango da, eta egoiliarrek Dansateliers-eko taldearen aholkularitza eta mentoring artistikoa izango du eskura lana garatzeko. Aldi berean, Dansateliers Rotterdam-ek Holandako testuinguruari lotuta dagoen koreografo bat hautatuko du, antzeko ibilbidea egin dezan, deialdi honetan hautatutako egoiliarrekin harremanean jarrita.

---

## **Praktika Artistikoetako Egonaldia 2021eko apirilaren 4ra arte**

Azkuna Zentroaren [Praktika Artistikoen Egonaldiak](#) Kubako eta Euskadiko artisten arteko trukea sustatzen du, bi espazioetan ikerketa-aldi bat eginez, testuinguru artistiko desberdinetan eta bertakoetan ikerkuntza eta lana bultzatzeko asmoz.

Deialdia apirilaren 4ra arte egongo da zabalik, Euskal Herriari lotutako lana eta ibilbidea duten artistei zuzenduta dago eta Carlos Garaicoa estudioak Habanan egiten duen [Artista x Artista](#) programarekin lankidetzan egiten da. Bilbon aukeratutako pertsonak Kuban egingo du egonaldiaren lehen zatia, eta Azkuna Zentroan bigarrena. Aldi berean, Carlos Garaicoa estudioak eta Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok Kubako artista bat hautatuko dute, eta horrek antzeko ibilbide bat egingo du, Bilboko artista egoiliarrekin harremanetan jarrita, Zentroko egonaldian.

---



Fundación Banco Sabadellék Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko Egonaldi Artistikoen Programa babesten du, artea eta kultura sustatzeko eta hedatzeko duen programaren barruan.



Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko Egonaldi Artistikoen Programak Etxepare Institutuaren laguntza du.

Ikertzaile Az-Kideen programa

# Sorkuntza eta ikerkuntza bultzatuz. Aimar Arriola

2020an, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok [Artista Az-Kideen programa](#) zabaldu du ikerkuntzaren eremura, egungo sorkuntzaren inguruko azterketa eta ekoizpena sustatzeko eta laguntzeko, eta, hartara, arte-komunitateen, publikoaren eta beste profesional batzuen arteko trukea errazteko.

Gonbidapen bidez eta bi urtez, hainbat artista eta ikertzaileekin arituko gara, haien prozesuan laguntzen eta partekatzen, haien proiektioa sustatzen eta beste sare artistiko batzuekin lotzen. Laguntza horren bidez, testuinguru hurbila jarriko da agerian, estatuko eta nazioarteko beste zentro batzuekiko, eta bibliografia zehatz bat sortuko da, komisariatua, eszena hedatuko unibertsoen, performancearen eta arte bisualei lotutako koreografiaren inguruan, egungo gizartearen eraldaketa-beharrei erantzuteko, arte bisualen, zuzeneko arteen eta abarren ikuspegitik.

Praktika horren emaitzak bide ematen du gizarte eta kultura garaikidearen begirada zabaltzen duen sorkuntzako materiala sortzeko, corpus bat eratuz, Zentroak corpus horren gainean lan egin ahal izan dezan, zinema, liburua, erakusketa, zuzeneko arteak eta bestelako formatuak erabiliz. Hori guztia Artxibora hedatuta, sormenerako eta bitartekaritzarako tresna gisa balio dezan, artistek beren sorkuntzako ekoizpenerako erabiltzeko moduko edukien bidez.

**Sorkuntzari laguntzeko programa honen eta beste batzuen bidez, Azkuna Zentroa esperimenezko eta praktika hedaturako gune gisa eratzten da.**

Praktika artistikoaren testuingurua aztertzeke hainbat maila osatzen dituzten diziplinak gurutzatzeko leku ireki modura. Era berean, Zentroan aldizka bizi den arte-komunitate baten sorrera sustatzen da, arte-ekoizpenari eta haren gizarte- eta kultura-testuinguruari buruzko hausnarketa kritiko inspiratzailea dakarten proiektuak partekatuz, eta ikerketak sormen-jardueraren parte gisa duen garrantzia nabarmenduz.

### **Aimar Arriola eta queer perspektiba ulertzeko moduak**

2020ko apiriletik aurrera eta bi urtez, [Aimar Arriola Azkuna Zentroko ikertzaile Az-Kidea](#) izango da. Artearen eta queer perspektibaren arteko harremanaren inguruan lan egingo du, Zentroaren programazioaren barruan, eta kultura bisualaren esparruko gorputz- eta artxibogaien inguruan egin duen lanik berrienarekin lotuko du, arteari eta plastikari buruzko gai espezifikoagoekin.

[Aimar Arriolak](#) queer/kuir perspektiba ulertzeko modu anitzak ditu abiapuntu bere ikerketan. Teoria kritikoaren eta gizarte-zientzien esparruan, queer/kuir perspektiba



maskulinitateari eta feminitateari buruzko konbentzio sozialak zalantzan jartzen dituen perspektiba gisa deskribatzen da, horiek desnaturalizatuz eta borroka feministen, anti-razisten eta dekolonialen eta LGBTIQ+ borroken iraganaren eta orainaren arteko elkarriketa bilatuz, eta, orobat, arauari ihes egiten dioten gorpuztasun, praktika eta sexu- eta genero-identitateak aldarrikatuz. Baina, zer da queer/kuir perspektiba arteari eta haren espezifikotasunari dagokionez? Nola hurbildu formaren eta sentikortasunaren esparruetatik queer/kuir perspektibara? Ingeleseko 'queer' hitzak

(eta euskarazko 'kuir' desbiderapenak) lehenik eta behin 'bihurria' eta 'arraroa' esan nahi duela ikusirik, zer izango litzateke artean queer/kuir forma bat?

Saiatuz gero, auzi horiek ikerketa-proiektuaren abiapuntua dira. Proiektu horren metodologia nagusia kuratore-praktika da, eta, zurrenik, abiaburuztat hartuko du elkarriketa eta lankidetzaz izatea, epe luzera lan egiteko asmoa duen artista-kopuru mugatu batekin.



Aimar Arriola. Arg.: Helena Goñi (2019)

////////////////////////////////////

**AIMAR ARRIOLA** (Markina-Xemein, 1976) komisarioa, editorea eta ikertzailea da. Doktorea da Londresko Goldsmiths Unibertsitateko Kultura Bisualen Sailetik. 2016. eta 2019. urteen artean, erakusketa eta programa publikoak antolatu ditu, bereak eta besteak agindutakoak, besteak beste, toki hauetan: MACBA, Bartzelona; The Showroom, Londres; Centro Centro, Madril; Bilboko Arte Ederren Museoa; Tabakalera, Donostia. Nancy Garín eta Linda Valdésekin batera, epe luzerako *Anarchivo sida* proiektua garatu du, GIB/HIESaren krisiaren berrikuspenaren inguruan. Gaur egun *eremuak* programako (Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila) Lan Batzorde Teknikoko kidea da eta *The Against Nature Journal* argitaletxeko editore-burua. Council-ek (Paris) hasitako argitalpen eta proiektu artistiko bat da hori, eta oraindik sexu- eta genero-identitateak jazartzen dituzten legeetan dagoen 'naturaren kontrakoa' kontzeptua du abiapuntu.

////////////////////////////////////

 [arriolaaimar](#)

 [aimar.arriola](#)

Artista Az-Kideak programa

## Oscar Gómez Mata

### Makers

Sorkuntza bultzatzeko [Artista Az-Kideak](#) programak laguntza eman nahi die beren lanen bidez hizkuntza artistikoei buruzko begirada iradokitzailea dakarten artistei. [Oscar Gómez Mata](#) artista [Az-Kideak](#), [Juan Oriente](#) aktorearekin batera lan egiten du bere ekoizpen berriaren sormen-prozesuan: Makers, argiari, denborari eta maitasunari buruzko obran.

Zentroan urrian estreinatuko den [Makers](#) «egiten dugunari eta egiteko moduari buruzko obra bat da, funtsean anomalia lantzen duena. Gure egiteko moduak bere dinamikan ezarritakoaren arauetatik harantz doan eta espazioan eta denboran gainezka egiten duen haur baten jolasaren antza izan beharko luke», azaldu du [Oscarrek](#).

«Haur bat bezalakoa izateko, kezkatzen ez den eta gainezka egiten duen gizabanako plurala eta multiplea izan beharra dago. Etsipenak sortzen duen errutinak mugatuta ez dagoena. Ezta erabilgarria

edo ezinezkoa denak ere. Utopista, izaki askea izango da, boterean dagoen belaunaldiak menderatzeko egiten dituen saiakerak gorabehera. Horixe behar dugu, ume bat, salbatuko gaituen ume bat. Gu, astirik gabeko helduak, honetatik, balearen sabeletik aterako gaituena. Gogo beroz anomalian murgildu. Anomaloa den horretan murgildu salbatzeko, zugiandik espero denaren kontrakoa egin», deskribatzen du artistak.

Proiektu horretaz gain, [Oscar Gómez Mata](#) [Deriben katalogoa](#) aktibatu du, [Espe López](#) artistarekin batera. Katalogoak hainbat deriba edo ibilaldi proposatzen ditu, eguneroko hiri-paisaien behaketa eta esplorazioa lantzeko. Azken helburua da pertsonen artelana berreskuratzea eta hartaz jabetzea: herritartasuna eta kultura esperientzia bakar batean urtea. Deriba horietako batzuk esperimentatu nahi dituztenek Az Infon eska ditzakete.

////////////////////////////////////

**OSCAR GÓMEZ MATA** (Donostia, 1963) Suitzian bizi eta lan egiten du. Aktorea, zuzendaria, egilea eta eszenografoa da. Espainian hasi zen antzerki-jardueretan, eta 1987an Legaleón-T konpainiaren sortzaile-kide izanik, ikuskizunak sortu zituen horiekin 1996ra arte. 1997an, L'Alakran konpainia sortu zuen Genevan, eta zuzendaritza, sorkuntza, dramaturgia eta zenbait ikuskizunetako testuak sinatu ditu bertan. Lan pedagogikoa ere garatu du Serge Martin (Suitza) antzerki eskolan eta Les Chantiers Nomades-en (Frantzia). 2013. urteaz geroztik, arazuko irakaslea da Manufacture-n, Suitzako antzerki-eskola frantsesean (HETSR). Suitzako antzerki sari nazionala eskuratu zuen 2018an.

////////////////////////////////////

 [alakran.ch](http://alakran.ch)



Oscar Gómez Mata eta Juan Oriente. Makers

## Choques y misterios

### **EN EL ATRIO**

Se trata de trabajar la observación y la atención, poniendo en marcha todos los sentidos. En silencio y observando, tratarás de fijarte en todos los detalles que normalmente nos pasan desapercibidos: las personas, la luz, los sonidos, los gestos, los objetos... Eres un/una observador/a.

**AL CABO DE 20'** deberás estar preparado/a para salir a la calle. En ese momento recibirás un mensaje que te indicará lo que tienes que hacer y sin prisa. Caminarás por la calle durante 1 hora aproximadamente, con paso tranquilo.

Cada cierto tiempo recibirás un mensaje en tu teléfono. Sigue las consignas. Prepara una libreta y boli para poder apuntar todo lo que te parezca interesante o relevante (observaciones, movimientos, personas, objetos, cosas que pasan, refazos de conversaciones, pensamientos, recuerdos...) Si te gusta hacer fotos o videos o grabar el ambiente, puedes llevar también aparatos para registrar el ejercicio (no es imprescindible).

Incorpora en tu desplazamiento el siguiente pensamiento de Paul Auster: **«Nos topamos con lo desconocido a cada paso. La tarea consiste en estar abierto-a a estos choques, ante los misteriosos sucesos del mundo»**





# Azkuna Zentroko Mediateka, konektatzeko, sortzeko eta pentsatzeko gune berria

Azkuna Zentroko [Mediateka BBK](#) barrutik eta kanpotik berritzen hasi da, sorkuntza artistikorako, ikaskuntzarako eta esperimenezko gune berri bihurtzeko, eta bertan pertsonen aukera izan dezaten kultura praktika, prozesu eta esperientzia gisa bizitzeko.

Liburutegi bat besterik ez da, baina funtzioak, ibilbideak eta bilduma zabalduko ditu, Zentroaren sei programazio-lerroen inguruan. Literatura, komikia eta bideo-jokoa ditu ardatz, baina espazio berriak ditu diziplina horien inguruko sorkuntza, topaketa eta sozializaziorako. Leku berean kokatuta dago, baina, orain, Zentroko gainerako guneei, hiriri eta nazioarteari lotuta dago, Azkuna Zentroaren proiektu osoaren zati gisa. Teka gisa, ez du bere funtza galtzen, baina kaxa hau konexiora, sorkuntzara eta gogoetara irekitzen da.

Hala, [Mediatekak](#) sorkuntza artistikoaren, ikaskuntzaren eta ikerketaren euskarri den eredu berri baterantz eboluzionatzen du, ikuspegi berritzaile batetik eta harekin murgilduta dauden komunitateekin harremanetan.

Aldaketa hori 2019-2023 Programa Proiektuaren eta Azkuna Zentroko gizaratearen eta kultura garaikidearen arteko lotura gisa duen xedearen barruan txertatzen da. Ia hamar urteko jardunaren ondoren, beharrezkoa zen Zentroaren kultura-motorretako bat berrikustea, motor hori erreferentzia bat baitzen ikasteko, ikertzeko, elkartzeko edo

irakurtzeko egunero bertan izaten ziren pertsonentzat. Testuinguru horretan, jatorri, adin eta hizkuntzen dibertsitatea da balio nagusietako bat.

Aldaketa-, eraldaketa- eta eguneratze-prozesu horretan, haren ADNari eutsi zaio, pertsonen egungo beharretara





Mediatekak sorkuntza artistikoaren, ikaskuntzaren eta ikerketaren euskarri den eredu berri baterantz eboluzionatzen du, ikuspegi berritzaile batetik eta harekin murgilduta dauden komunitateekin harremanetan.



egokituz, eta espazioan ere islatzen den kultura-eredu berri baterantz joz.

Azkuna Zentroaren eraikineko hiru solairuak birdiseinatu dira konexio-maila desberdinak sortzeko, errazenetatik globalenetara. Horietako bakoitzean egiten den jarduerak konexio horiek sortzen duten soinu-mailarekin du zerikusia.

Lehenengo eta bigarren solairuetan, xuxurla eta zarata eremu komunitario baten isla dira. Programazioak laguntza ematen du Zentroaren programazio-lerroekin zerikusia duten jardueretan parte hartzeko, jendearentzako arretako langileen laguntzarekin, horien gaitasunak zabaltzen eta hedatzen baitira, bitartekaritza-funtzio berriak gehituta.

Hirugarren solairuan, isiltasuna da nagusi, jakintza eta jarduera bibliografikoa ardatz gisa dituen espazioan.

Eraldaketaren barruan, seinaletika berriz diseinatu da, Zentro osoan egingo den moduan, eta klimatizazioa eta argiztapena ere bai, Azkuna Zentroko ingurumen-iraunkortasuneko planean jasotako eran.



# Azkuna Zentroa argitalpenak



Izenburua:  
Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa  
ISBN:  
978-84-09-14258-3  
Ezaugarriak:  
230 x 160mm  
Hizkuntzak:  
Euskara, gaztelania, ingelesa  
Distribuzioa:  
Editorial La Rueda

## Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa

Katalogo-liburua

Antonin Artaud poetaren *Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa* esaldia izan zen Azkuna Zentroak ekoiztako eta Iván de la Nuez saiakeragile, kritikari eta komisarioak komisariatutako eta 2019ko martxotik irailera bitartean Erakusketa Aretoan ikusgai izandako erakusketa homonimoaren ikurra.

Erakusketak 13 artistaren diskurtsoak lotzen zituen, denek onartzen baitzuten artea genero literarioa dela eta literatura erakusketa-proiektua izan daitekeela.

Kurt Caviézel, Cristina de Middel, Gonzalo Elvira, Oier Etxeberria, Kiko Faxas, Joan Fontcuberta, Verónica Gerber Bicecci, Alicia Kopf, Glenda León, Valérie Mréjen, Guillem Nadal, Mabi Revuelta eta Xabier Salaberriaren lanek liburuen liburu bat osatu zuten, prozesu baten esperientzia, non testua testura bihurtzen den, hitza irudi, liburu display, literatura-erakusketa erakusketa bisual.

Erakusketa egin ondoren, katalogo-liburu honek idazkuntza gisa ematen dio jarraipena display gisa amaitu denari. Iraganeko esperientziari euskarria ematen dio, oroimenaren artxiboaren gainean doa, eta argi eta garbi jartzen du bere garaian jakin-mina izan zena eta testu gisa bizirik irauten duena.





Izenburua:  
Ikuspegi feministak produkzio  
artistikoan eta arte teoretan  
ikastaroaren 11. edizioa

Ezaugarriak:  
164 x 230 mm / 417 orrialde

Hizkuntzak:  
Euskara, gaztelania, ingelesa

## **Ikuspegi feministak produkzio artistikoan eta arte teoretan**

Azken urteotan, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok **Ikuspegi feministak produkzio artistikoan eta arte teoretan** ikastaroa antolatu du, Lourdes Méndezek (UPV/EHUko Artearen Antropologiako katedradunak) eta Xabier Arakistainek (arte-komisarioak) koordinatua, herrialde, diziplina eta belaunaldi desberdinetako emakumeen ekoizpen artistikoari buruzko pentsamendua eta azterketa emakumeen ikuspegitik zabaltzeko asmoz.

Argitalpenean, hainbat hizlariren ekarpenak jaso dira: Plataforma A, emakumeak artearen sisteman normaltasunez sartzeko euskal talde feminista; Sonia Boyce, artista eta irakaslea Londresko Arteen Unibertsitatean; Esther Ferrer, performancearen artearen aitzindaria; Lorena Fuster, filosofian doktorea eta 'TRAMOD. Trajectories of Modernity' europar proiektuaren ikertzailea; Alice Mahon, Cambridgeko Unibertsitateko irakaslea eta arte moderno eta garaikidearen historiako doktorea; Frances Morris, historialaria eta Londresko Tate Moderneko zuzendaria; eta Alicia Puleo, filosofian doktorea, idazlea eta Valladolideko Unibertsitateko irakaslea.

# dendAZ THIS IS BASQUE DESIGN

Elena Ciordia, MRLASPIUR, Malús eta Palo Palú artistek bat egin dute Azkuna Zentroko dendAZ. [This is Basque Design](#) proiektuarekin. Hogeita hamar bat sortzailek, diseinatzailek eta eskulangilek hartzen dute parte proiektu horretan. Atariko dendan ikus eta eros daitezke egiten dituzten produktuak, eta objektu berezi horiek sortzeko darabiltzaten prozesuak, artea, diseinua eta ekoizpen-teknika berriak batzen dituen ikusmolde batetik diseinatuak, eta artisau-lana eta sormena balioesten dituztenak.

dendAZ. [This is Basque Design](#) proiektuak publiko-komunitateen eta testuinguru artistikoaren arteko prozesuak eta loturak sustatzen ditu, eta kontzientzia sortzen du erosketa-mota berri baten inguruan. Era berean, zubiak eraikitzen ditu sorkuntza-sektoreekin eta kultura- eta sormen-industrietan lan egiten duten pertsonekin. Proiektuak online denda du, Zentroko produktu eta argitalpen batzuekin.

dendAZ saltokiaren diseinuak accesita jaso du, Estatuko zurezko arkitekturaren fororik garrantzitsuena den Egurtek-en urteko sarietan. Epaiari hau baloratu dute bereziki: «barneen diseinua, altzarien sistema modular baten bidez egina, sistema horren egiturak, zabaltzean, izaera ematen baitio espazio osoari; lortzen den nortasun ekologikoa eta altzariak kanpoaldea kolonizatzeke duten ahalmenak».

## MALÚS ARBIDE

[malusarbide.com](http://malusarbide.com)  
[pinterest.es/arbide1226](https://pinterest.es/arbide1226)  
Bilbao



Malús Arbide artista eta ehungintzako diseinatzailea da. Bere prestakuntzak eta ibilbide profesionalak pintura dute abiapuntu. Bere ekoizpen artistikoaren fase aurreratuetan, koadroek all over errepikatutako motiboak lantzen zituzten. Horren ondorioz, ehuna diseinatzeko eta estanpatzeko interesa piztu zitzaion.

Pattern bat egiteko behar den zehaztasun geometrikoz lan egiten du, eta pinturaren sormenezko askatasunaren eta arte-potentzialaren berezko motiboekin eta koloreekin esperimentatzen du. Bere diseinuak denboraz kanpokoak eta merkatuaren joeretatik kanpokoak dira, bere intuizioaren eta interes artistikoen arabera gidatzen baita. Zapiak ehun naturalekin (zeta eta artilearekin) eta tinta ekologikoekin egiten dira. Beti oso edizio mugatuetan edo pieza bakarretan.

## ELENA CIORDIA

[elenaciordia.com](http://elenaciordia.com)  
[@elenaciordia](https://twitter.com/elenaciordia)  
Ortuella



Arte Ederretan lizentziatu eta urte batzuk soilik pinturan arituz eman ondoren, Elena Ciordiak jauzi egin zuen ilustraziora, eta hainbat objekturen langintzarekin bateratu zuen, hala nola elastikoak, zapalgailuak, postalak eta poltsak egiten, materialak ahalik eta gehien zainduz, beti organikoak edo jatorri birziklatutakoak erabiliz.

Objektuetako irudiak jatorrizko akuareletan oinarrituta daude; horiei izaera berria ematen diete, eta gu bestelako mundu batera igortzen gaituzte, benetako emakume aktiboak protagonista diren mundura.

## MRLASPIUR

mrlaspiur.com  
info@mrlaspiur.com  
Donostia



////////////////////////////////////

Maria R. Laspiur (1990) artista eta moda diseinatzaile eta Jaime A. Limousin (1989) ingeniari eta musikoa, MRLASPIUR proiektua sortu zuten orain de la pare bat urte; artea, diseinua eta teknologia berriak fusionatuz. Mariaren artelanetan oinarritutako bitxi-kolekzio bat sortzeko abenturari ekin zioten.

Bitxiak, Mariaren ilustrazioetan oinarritutako eta fantasiazko botanikan inspiratutako diseinu koloretsu eta ekologikoak dira. Hauek, 'Posidonia Estudio' tailerrean egiten dituzte 3D inpresioaren bitartez.

Kolekzio atemporal hauek belarritakoak dituzte produktu nagusi, baina orratzak, lepokoak, brotxeak eta zetazko zapiak ere diseinatzen dituzte. Hauen sormenerako, 'PLA' polimero begetala erabiltzen dute, oso arina eta gainera biodegradarria dena.

## PALOPALÚ

palopaluu.com  
@palopalupalopaluu  
Bilbao




////////////////////////////////////

Rosalía Fernández eta Elena Murillo gara Palopalu: bata zaharbertitzailea eta bestea ilustratzailea. Elkarrekin sortu genuen proiektu kooperatibo honetan, zurak eta ilustrazioak dute protagonismo osoa.

Pieza apaingarriak eta jolas librea eta sormena sustatuz hezteko pentsatutako piezak. Artisan-lanerako zaletasuna dugu, eta, horregatik, eskuz egindako objektua aldarrikatzen dugu, kontuz eta materialekiko errespetuz landutakoa.

Zurak aukera eman digu imajinatzeko, irudikatzeko, asmatzeko, konposatzeko eta jolasteko. Indarrez betea, erresistentea eta naturaren zati bat da, gure irudien oinarri bizia eta naturala.



Laguntzaileak:

**Bilbao**Ekintza

**Bizkaia**  
beaz

**EIDE  
EUSKAL  
DISEINUA**





## AGENDA / EKAINA

NOIZ	ORDUA	LANA/JARDUERA	+INFO
<b>OTS. 20</b> > <b>IRA. 20</b>		Erakusketa <i>Steve Paxton. Drafting Interior Techniques</i>	16. orr.
<b>OTS. 13</b> > <b>UZT. 18</b>		Erakusketa <b>Alina Aguila eta Tana Garrido</b> <i>Hautzarotik zahartzarora, eta alderantziz</i>	18. orr.
<b>EKA. 16</b> > <b>UZT. 4</b>		Erakusketa-Soinu interbentzioa <b>Sandra Cuesta</b> <i>Lo adherente y el fuego</i>	20. orr.

## AGENDA / UZTAILA

NOIZ	ORDUA	LANA/JARDUERA	+INFO
<b>OTS. 20</b> > <b>IRA. 20</b>		Erakusketa <i>Steve Paxton. Drafting Interior Techniques</i>	16. orr.
<b>OTS. 13</b> > <b>UZT. 18</b>		Erakusketa <b>Alina Aguila eta Tana Garrido</b> <i>Hautzarotik zahartzarora, eta alderantziz</i>	18. orr.
<b>EKA. 16</b> > <b>UZT. 4</b>		Erakusketa-Soinu interbentzioa <b>Sandra Cuesta</b> <i>Lo adherente y el fuego</i>	20. orr.
<b>UZT. 1-ETIK</b> <b>AURRERA</b>		<b>Nestor Lizalde</b> <i>Akelarre elektrikoa</i>	22. orr.
<b>UZT. 2</b> <b>Osteguna</b>	19:00	Artista Az-Kideak <b>Sra. Polaraiska</b> <i>Emakume jakintsuen kontseilua. Garbiñe Mendizabal</i>	24. orr.
<b>UZT. 7</b> <b>Asteartea</b>	17:00	<b>Blde0tik. Ikus-entzunezko bestelako narrazioei begira</b> <i>Una dedicatoria a lo bestia (2019) + Patchwork (2018) + Capas (2018)</i>	36 orr.
	19:00	<b>Blde0tik. Ikus-entzunezko bestelako narrazioei begira</b> <i>Zumiriki (2019)</i>	37 orr.
<b>UZT. 8</b> <b>Asteazkena</b>	10:30	<i>Barruko tekniken estudioak</i>	28 orr.
	16:00	Steve Paxtonen inguruko nazioarteko mintegia	

# AGENDA / UZTAILA

NOIZ	ORDUA	LANA/JARDUERA	+INFO
UZT. 9 Osteguna	11:00 16:30	<i>Barruko tekniken estudioak</i> Steve Paxtonen inguruko nazioarteko mintegia	28 orr.
	17:15 19:45	Zinemateka. <b>Hamar zinemaurre, hamaika ikusteko</b> <i>Haevnen (Civilization)</i> (2010) <i>Mundu hobe batean</i>	40 orr.
UZT. 10 Ostirala	17:00	<b>Golem Verano.</b> <i>Ema</i> (2019)	42. orr.
	20:00	<b>Golem Verano.</b> <i>Waves</i> (2019) <i>Un momento en el tiempo</i>	42. orr.
UZT. 11 Larunbata	20:00	<b>Golem Verano.</b> <i>Ema</i> (2019)	42. orr.
	17:00	<b>Golem Verano.</b> <i>Waves</i> (2019) <i>Un momento en el tiempo</i>	42. orr.
UZT. 12 Igandea	17:00	<b>Golem Verano.</b> <i>Ema</i> (2019)	42. orr.
	20:00	<b>Golem Verano.</b> <i>Waves</i> (2019) <i>Un momento en el tiempo</i>	42. orr.
UZT. 13 Astelehena	20:00	<b>Golem Verano.</b> <i>Ema</i> (2019)	42. orr.
	17:00	<b>Golem Verano.</b> <i>Waves</i> (2019) <i>Un momento en el tiempo</i>	42. orr.
UZT. 14 Asteartea	17:00	<b>Golem Verano.</b> <i>Ema</i> (2019)	42. orr.
	20:00	<b>Golem Verano.</b> <i>Waves</i> (2019) <i>Un momento en el tiempo</i>	42. orr.
UZT. 15 Asteazkena	20:00	<b>Golem Verano.</b> <i>Ema</i> (2019)	42. orr.
	17:00	<b>Golem Verano.</b> <i>Waves</i> (2019) <i>Un momento en el tiempo</i>	42. orr.
UZT. 15 > URR. 1		Fatxada Proiektua. Diseinua, ilustrazioa eta komikia <b>Asier Irazabal &amp; Hernán Quipildor</b> <i>La llave del alma</i>	26 orr.
UZT. 16 Osteguna	17:15 19:45	Zinemateka. <b>Hamar zinemaurre, hamaika ikusteko</b> <i>Jodaeiye Nader az Simin</i> (2011) <i>Nader eta simin, bereizketa bat</i>	40 orr.
UZT. 17 Ostirala	17:15	<b>Golem Verano.</b> <i>Aute Retrato</i> (2019)	42. orr.
	20:00	<b>Golem Verano.</b> <i>The Lighthouse</i> (2019) <i>El faro</i>	42. orr.
UZT. 18 Larunbata	20:00	<b>Golem Verano.</b> <i>Aute Retrato</i> (2019)	42. orr.
	17:15	<b>Golem Verano.</b> <i>The Lighthouse</i> (2019) <i>El faro</i>	42. orr.
UZT. 19 Igandea	17:15	<b>Golem Verano.</b> <i>Aute Retrato</i> (2019)	42. orr.
	20:00	<b>Golem Verano.</b> <i>The Lighthouse</i> (2019) <i>El faro</i>	42. orr.

## AGENDA / UZTAILA

NOIZ	ORDUA	LANA/JARDUERA	+INFO
UZT. 20 Astelehena	20:00	<b>Golem Verano. <i>Aute Retrato</i></b> (2019)	42. orr.
	17:15	<b>Golem Verano. <i>The Lighthouse</i></b> (2019) <i>El faro</i>	42. orr.
UZT. 21 Asteartea	17:15	<b>Golem Verano. <i>Aute Retrato</i></b> (2019)	42. orr.
	20:00	<b>Golem Verano. <i>The Lighthouse</i></b> (2019) <i>El faro</i>	42. orr.
UZT. 22 Asteazkena	20:00	<b>Golem Verano. <i>Aute Retrato</i></b> (2019)	42. orr.
	17:15	<b>Golem Verano. <i>The Lighthouse</i></b> (2019) <i>El faro</i>	42. orr.
UZT. 23 Osteguna	17:15 19:45	Zinemateka. <b>Hamar zinemaurre, hamaika ikusteko</b> <i>Dans la maison</i> (2011) <i>Etxean</i>	40 orr.
UZT. 24 Ostirala	17:15 22:30	<b>Golem Verano. <i>El hoyo</i></b> (2019)	42. orr.
	19:45	<b>Golem Verano. <i>Synonymes</i></b> (2019) <i>Sinónimos</i>	42. orr.
UZT. 25 Larunbata	20:00	<b>Golem Verano. <i>El hoyo</i></b> (2019)	42. orr.
	17:15	<b>Golem Verano. <i>Synonymes</i></b> (2019) <i>Sinónimos</i>	42. orr.
UZT. 26 Igandea	17:15	<b>Golem Verano. <i>El hoyo</i></b> (2019)	42. orr.
	19:45	<b>Golem Verano. <i>Synonymes</i></b> (2019) <i>Sinónimos</i>	42. orr.
UZT. 27 Astelehena	20:00	<b>Golem Verano. <i>El hoyo</i></b> (2019)	42. orr.
	17:15 22:15	<b>Golem Verano. <i>Synonymes</i></b> (2019) <i>Sinónimos</i>	42. orr.
UZT. 28 Asteartea	17:15 22:15	<b>Golem Verano. <i>El hoyo</i></b> (2019)	42. orr.
	19:15	<b>Golem Verano. <i>Synonymes</i></b> (2019) <i>Sinónimos</i>	42. orr.
UZT. 29 Asteazkena	20:00	<b>Golem Verano. <i>El hoyo</i></b> (2019)	42. orr.
	17:15 22:15	<b>Golem Verano. <i>Synonymes</i></b> (2019) <i>Sinónimos</i>	42. orr.
UZT. 30 Osteguna	17:15 19:45	Zinemateka. <b>Hamar zinemaurre, hamaika ikusteko</b> <i>Amour</i> (2012) <i>Amor</i>	40 orr.



# AGENDA / ABUztua

NOIZ	ORDUA	LANA/JARDUERA	+INFO
<b>OTS. 20</b> > <b>IRA. 20</b>		Erakusketa <i>Steve Paxton. Drafting Interior Techniques</i>	16. orr.
<b>UZT. 1-ETIK</b> <b>AURRERA</b>		<b>Nestor Lizalde</b> <i>Akelarre elektrikoa</i>	22. orr.
<b>ABU. 1</b> <b>Larunbata</b>	19:45	<b>Golem Verano. <i>Portrait de la jeune fille en feu Céline Sciamma</i></b> (2019) <i>Retrato de una mujer en llamas</i>	42. orr.
	17:15 22:30	<b>Golem Verano. <i>Monos</i></b> (2019)	42. orr.
<b>ABU. 2</b> <b>Igandea</b>	17:00 22:30	<b>Golem Verano. <i>Portrait de la jeune fille en feu Céline Sciamma</i></b> (2019) <i>Retrato de una mujer en llamas</i>	42. orr.
	19:45	<b>Golem Verano. <i>Monos</i></b> (2019)	42. orr.
<b>ABU. 3</b> <b>Astelehena</b>	19:45	<b>Golem Verano. <i>Portrait de la jeune fille en feu Céline Sciamma</i></b> (2019) <i>Retrato de una mujer en llamas</i>	42. orr.
	17:15 22:15	<b>Golem Verano. <i>Monos</i></b> (2019)	42. orr.
<b>ABU. 4</b> <b>Asteartea</b>	17:00 22:15	<b>Golem Verano. <i>Portrait de la jeune fille en feu Céline Sciamma</i></b> (2019) <i>Retrato de una mujer en llamas</i>	42. orr.
	19:45	<b>Golem Verano. <i>Monos</i></b> (2019)	42. orr.
<b>ABU. 5</b> <b>Asteazkena</b>	19:45	<b>Golem Verano. <i>Portrait de la jeune fille en feu Céline Sciamma</i></b> (2019) <i>Retrato de una mujer en llamas</i>	42. orr.
	17:00 22:15	<b>Golem Verano. <i>Monos</i></b> (2019)	42. orr.
<b>ABU. 6</b> <b>Osteguna</b>	12:30 18:30 20:00	<b>BOS-Az. Musika lotuneak</b>	30. orr.
	17:15 19:45	Zinemateka. <b>Hamar zinemaurte, hamaika ikusteko</b> <i>La belle saison</i> (2015) <i>Udako amodio bat</i>	40. orr.
<b>ABU. 7</b> <b>Ostirala</b>	17:15 22:30	<b>Golem Verano. <i>Ray &amp; Liz</i></b> (2019)	42. orr.
	19:45	<b>Golem Verano. <i>0 que arde</i></b> (2019) <i>Lo que arde</i>	42. orr.

## AGENDA / ABUZTUA

NOIZ	ORDUA	LANA/JARDUERA	+INFO
ABU. 8 Larunbata	20:00	Golem Verano. <i>Ray &amp; Liz</i> (2019)	42. orr.
	17:15 22:30	Golem Verano. <i>O que arde</i> (2019) <i>Lo que arde</i>	42. orr.
ABU. 9 Igandea	17:15 22:30	Golem Verano. <i>Ray &amp; Liz</i> (2019)	42. orr.
	19:45	Golem Verano. <i>O que arde</i> (2019) <i>Lo que arde</i>	42. orr.
ABU. 10 Astelehena	20:00	Golem Verano. <i>Ray &amp; Liz</i> (2019)	42. orr.
	17:15 22:15	Golem Verano. <i>O que arde</i> (2019) <i>Lo que arde</i>	42. orr.
ABU. 11 Asteartea	17:15 22:15	Golem Verano. <i>Ray &amp; Liz</i> (2019)	42. orr.
	19:15	Golem Verano. <i>O que arde</i> (2019) <i>Lo que arde</i>	42. orr.
ABU. 12 Asteazkena	20:00	Golem Verano. <i>Ray &amp; Liz</i> (2019)	42. orr.
	17:15 22:15	Golem Verano. <i>O que arde</i> (2019) <i>Lo que arde</i>	42. orr.
ABU. 13 Osteguna	12:30 18:30 20:00	BOS-Az. Musika lotuneak	30 orr.
	17:15 19:45	Zinemateka. Hamar zinemaurte, hamaika ikusteko <i>L'Avenir</i> (2016) <i>Etorkizuna</i>	41 orr.
ABU. 14 Ostirala	17:00 22:30	Golem Verano. <i>Fourteen</i> (2019)	42. orr.
	19:30	Golem Verano. <i>Queen &amp; Slim</i> (2019)	42. orr.
ABU. 15 Larunbata	20:00	Golem Verano. <i>Fourteen</i> (2019)	42. orr.
	17:00 22:30	Golem Verano. <i>Queen &amp; Slim</i> (2019)	42. orr.
ABU. 16 Igandea	17:00 22:30	Golem Verano. <i>Fourteen</i> (2019)	42. orr.
	19:30	Golem Verano. <i>Queen &amp; Slim</i> (2019)	42. orr.

NOIZ	ORDUA	LANA/JARDUERA	+INFO
ABU. 17 Astelehena	20:00	<b>Golem Verano.</b> <i>Fourteen</i> (2019)	42. orr.
	17:00 22:30	<b>Golem Verano.</b> <i>Queen &amp; Slim</i> (2019)	42. orr.
ABU. 18 Asteartea	17:00 22:30	<b>Golem Verano.</b> <i>Fourteen</i> (2019)	42. orr.
	19:30	<b>Golem Verano.</b> <i>Queen &amp; Slim</i> (2019)	42. orr.
ABU. 19 Asteazkena	20:00	<b>Golem Verano.</b> <i>Fourteen</i> (2019)	42. orr.
	17:00 22:30	<b>Golem Verano.</b> <i>Queen &amp; Slim</i> (2019)	42. orr.
ABU. 20 Osteguna	12:30 18:30 20:00	<b>BOS-Az.</b> Musika lotuneak	30 orr.
	17:15 19:45	Zinemateka. <b>Hamar zinemaurte, hamaika ikusteko</b> <i>Toivon tuolla puolen</i> (2017) <i>Itxaropenaren beste aldea</i>	41 orr.
ABU. 21 Ostirala	17:00 22:30	<b>Golem Verano.</b> <i>Nan Fang Che Zhan De Ju Hui</i> (2019) <i>El lago del ganso salvaje</i>	42. orr.
	19:45	<b>Golem Verano.</b> <i>La vérité</i> (2019) <i>La verdad</i>	42. orr.
ABU. 22 Larunbata	19:45	<b>Golem Verano.</b> <i>Nan Fang Che Zhan De Ju Hui</i> (2019) <i>El lago del ganso salvaje</i>	42. orr.
	17:15 22:30	<b>Golem Verano.</b> <i>La vérité</i> (2019) <i>La verdad</i>	42. orr.
ABU. 23 Igandea	17:00 22:30	<b>Golem Verano.</b> <i>Nan Fang Che Zhan De Ju Hui</i> (2019) <i>El lago del ganso salvaje</i>	42. orr.
	19:45	<b>Golem Verano.</b> <i>La vérité</i> (2019) <i>La verdad</i>	42. orr.
ABU.24 Astelehena		<b>Dantzan Bilaka</b> Mentoring aurkezpena	32. orr.
	19:45	<b>Golem Verano.</b> <i>Nan Fang Che Zhan De Ju Hui</i> (2019) <i>El lago del ganso salvaje</i>	42. orr.
	17:15 22:15	<b>Golem Verano.</b> <i>La vérité</i> (2019) <i>La verdad</i>	42. orr.

## AGENDA / ABUZTUA

NOIZ	ORDUA	LANA/JARDUERA	+INFO
<b>ABU. 24 &gt; 29</b> Astz. > Lar.		<b>Dantzan Bilaka</b> Tailerra <b>Thiago Granato</b>	32. orr.
<b>ABU. 25</b> Asteartea		<b>Dantzan Bilaka</b> Mentoring aurkezpena	32. orr.
	17:00 22:15	<b>Golem Verano.</b> <i>Nan Fang Che Zhan De Ju Hui</i> (2019) <i>El lago del ganso salvaje</i>	42. orr.
	19:45	<b>Golem Verano.</b> <i>La vérité</i> (2019) <i>La verdad</i>	42. orr.
<b>ABU. 26</b> Asteazkena	19:45	<b>Golem Verano.</b> <i>Nan Fang Che Zhan De Ju Hui</i> (2019) <i>El lago del ganso salvaje</i>	42. orr.
	17:00 22:15	<b>Golem Verano.</b> <i>La vérité</i> (2019) <i>La verdad</i>	42. orr.
<b>ABU. 27</b> Osteguna	12:30 18:30 20:00	<b>BOS-Az. Musika lotuneak</b>	30 orr.
	17:15 19:45	Zinematoka. <b>Hamar zinemaurte, hamaika ikusteko</b> <i>Bar Bahar</i> (2016) <i>Bar Bahar, bi munduren artean</i>	41 orr.

## INFORMAZIO OROKORRA ETA PROTOKOLOAK

////////////////////

Azkuna Zentroa- Alhóndiga Bilbaon kultura-programazioa aktibatzen dugu pertsonen segurtasuna bermatzeko behar diren neurri guztiekin. Jendeari harrera egiteko eta Zentroa sartzeko protokolo bat aplikatzen dugu, Covid-19a heda ez dadin. Protokolo horrek barne hartzen ditu edukierak egokitzea, Zentroan ibilbideak ezartzea, eraikin osoan eskuak desinfektatzeko sistema automatikoak eta higienizazio- eta garbiketa-jarraibide espezifikoak. Neurri horiek guztiak egokitu eta aldatuko dira pixkanaka, egoeraren garapenaren eta osasun-arloko agintarien erabakien arabera.

Gogoratu Azkuna Zentroan ere gomendio guztiak bete behar direla, Covid-19 birusaren transmisioa prebenitzeko eta hauetaz gain:

- Erakusketak ezarritako segurtasun-protokoloetara egokitu ditugu.
  - Erakusketa Aretoko edukiera: 106 p.
  - Lantegia 2 edukiera:
    - BAT Espazioa: 28 p.
    - Lab 3: 10 p.
  - Nahitaezkoa da maskara erabiltzea.
  - Garbitu eskuak espazioetara sartu baino lehen eta irteterakoan. Ez ukitu azalera komunak. Egiten baduzu, garbitu eskuak.
  - 2m-ko segurtasun distantzia mantendu beste pertsonetikiko eta obrekiko.
  - Umeak lagunduta egon behar dira.
- Jarraitu Zentroan zehar dauden ibilbideak.
- Erabili itzazu paperezko zapienztat, eskularruentzat eta maskarentzat dauden zakarrontzi bereziak.
- Ilogailua erabili bakarrik beharrezkoa bada eta edukiera errespetatu.
- Ordaintzeko, txartelarekin hobe.



Informazio osoa kontsulta ezazu:

### Az TXARTELA

////////////////////

Az Txartelak aukera ematen dizu kultura, gizarte eta ariketa fisikoko jarduerak biltzen dituen eskaintza zabalaz gozatzeko gure zentroan. Zentroko Txartelarekin, jarduera guztien inguruko informazioa jasoko duzu aldizka, eta deskontu eta abantaila interesgarriak lortuko dituzu.

Txartela emateak eta behar denean berritzeak 3 euroko kostua du.

### IRISGARRITASUNA

////////////////////

Azkuna Zentroak espazio errespetuzko, ireki eta irisgarria izan nahi du orotariko pertsona eta komunitateentzat. Gure jardueretan errazago parte hartzeko laguntza teknikorik behar baduzu, eska iezaguzu.

////////////////////

## BISITA GIDATUAK ETA ORDUTEGIAK

Informazioa eguneratua kontsulta ezazu [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus) webgunean.

## GOLEM ALHÓNDIGA ZINEMAK

Informazioa eguneratua kontsulta ezazu [golem.es](http://golem.es) webgunean.

## YANDIOLA, THE BOAR, HOLA BAR

Informazioa eguneratua kontsulta ezazu [yandiola.com](http://yandiola.com) webgunean.

### Gogoan izan:



Zure maskara erabili



Distantzia mantendu



Espazioetara sartu baino lehen eta irteterakoan



Estali zaitetz ez tul edo doministiku egitean



Ez ukitu aurpegia



Ez ukitu azalera komunak. Egiten baduzu, garbitu eskuak



Sintomak nabaritzen badituzu, etxean geratu zaitetz eta zure osasun zentroarekin harremanetan jarri

# Jar zaituz harremanetan Az-rekin

[azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)

Artistak: [programacioncultural@azkunazentroa.eus](mailto:programacioncultural@azkunazentroa.eus)

Deialdiak: [deialdiak@azkunazentroa.eus](mailto:deialdiak@azkunazentroa.eus)

Jendearentzako arreta: [info@azkunazentroa.eus](mailto:info@azkunazentroa.eus)

**944 014 014**

PLAZA ARRIQUIBAR, 4  
48010 BILBAO



Lege gordailua BI-1482-2018

© 2019. Centro Azkuna de Sociedad y Cultura Contemporánea S.A.



**B**

**Bilbao**

gizartea eta kultura garaikidea

*#BilbaoUda.2020* 

azkunazentroa.eus

AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO 